

musika

'bakardadearen kantoia'
estudioa

hezkuntza

hezkuntza berezirako
materialak

kultura

gasteizko
lubaki elkarte

QEU

2005eko azaroa

155



sorkun:
'duna'

Doan BERRIArekin

Pirritx eta Porritx

familien
karta-jokoa



Azaroaren 5etik
aurrera



Euskaldunok behar dugun **berria**

Radio Álava

98.0 Fm



Loyola Media

Loyola Media:

Radio Indautxu 93.5 Fm Herri Irratia Loiola 99.8 Fm

Radio Álava 98.0 Fm Herri Irratia Donostia 94.8 Fm

www.herriirratia.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

SUMARIOA155



8



15



18


Laguntzaileak:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Araba Foru Aldundia
Foru 2006



CAJA LABORAL
SOLASAREN KUTXA

zeregin 4
azaroko agenda

iritzia 6
aht-ren inpaktu ekologikoa (II)

geupertsonaia 8
sorkun

euskaltasunean. agurain 12
ion gauna

kaletik / idazleenzutabea 13
telebista / gerardo markuleta

geugaia 15
'bakardadearen kantoia' musika-estudioa

batbitan 18
lubaki elkarte, topagune&euskalgune

artetxokoa 20
euskarazko komikia > 'numenak aita'

proposamenak / literatura 22
cd&aldizkaria&zinea / txabi arnal

lauhitzetan 23
'ansoleta topagunea' / beste

batbitan 24
hezkuntza berezirako materialak

bidaia / errezeta 26
jon arretxe / txitxarro brotxeta

arababixotzian / historiazutabea 27
alfredo ibarra / erlantz urtasun


orribatean 29
poltsikoko telefonoak & euskal abestiak

orribatean 30
soviet denda

historia(εeuskara) 31
burdinolak eta burdin-lana

umorea 33
iñigo sarasola


geu elkarte & geu aldizkaria 34
kultur eskaintza



20



24



26



30

1.

KONTZERTUA

> pan de capazo. musika tradizionalak, erdi aroko folk-punka parral tabernan, 20.30ean



3.

ANTZERKIA

> gasteizko nazioarteko XXX. antzerki jaialdia
'kausiar klerazko zirkulua'. théâtre des chimères. euskaraz
principal antzokian
www.vitoria-gasteiz.org

4.

ANTZERKIA > antzerki arabarraren I. erakustaldia: 'alaia'. panta rey. umeentzat

zigoitiko zentro soziokulturalean, 19.00etan
antolatzailea: ama-lur kultura koordinakundea www.ama-lur.com

DANTZA

> otehitari biraka dantza
amurrio antzokian, 20.00etan (10 €)

5.

DJ-A > makala dj-a
cairo stereoclub-ean, gauez

IKASTAROK EUSKARAZ

> txalaparta. azaroak 5, 12, 19, 26
aldabe gizarte etxean,
22.00etatik 00.00etara
www.gauekoak.com

6.

ZINE FORUMA

> filma: 'bloody sunday'. ondoren, eztabaida
azaroaren 6tik hasita, igandero
lubaki elkarte (salbador azpiazu, 2), 18.00etan / igandero

8.

KONTZERTUAK

> arean (2. diskoaren aurkezpena)
parral tabernan, 20.30ean

> 'EHUNGARRENEAN HAMAIIKA. LAJAXETA 05'
bilboko arriaga antzokian, 20.00etan

10. JARDUNALDIK

> mintzapraktika egitasmoak: erabilera lantzeko tresna eraginkorrak
durangoko landako elkartean, 9.00-18.00
topagunea, aek, ika
www.topagunea.org

TOPAKETA

> VIII. emakume poeten nazioarteko topaketa
azaroak 10, azaroak 16-18
informazioa: xuxurlak@yahoo.es

13.

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA

> finalurrekoen 1. itzulia
principal antzokian, 17.00etan
bertsozale elkarte
www.txapelketanagusia.com

ZINE FORUMA

> filma: zehazteke. ondoren, eztabaida
lubaki elkarte (salbador azpiazu, 2), 18.00etan

14.

JARDUNALDIK

> mendi ikus-entzunezko-jardunaldiak
ion goikoetxea: ama dablun 2005 (euskaraz)
satorra kirol elkarte. vital kutxa fundazioko aretoan

BILTZARRA

> kulturpol05: kultur politikari buruzko I. biltzarra
bilboko euskalduna jauregian. azaroak 14-15
www.kulturpol05.com

15.

KONTZERTUA

> jone eta petti
parral tabernan, 20.30ean

HITZALDIA

> patxi zubizarreta: 'urrezko giltza' liburu berriaren harira
arantzabela ikastolan,
18.00etan. xagumendi kultura
elkarte & oihan guraso elkarte

17.

HITZALDIA > patxi zubizarreta: 'urrezko giltza' liburu berriaren harira. arantzabela ikastolan, 18.00etan. xagumendi kultura elkarte & oihan guraso elkarte

JARDUNALDIK > mendi ikus-entzunezkoak. jose carlos tamayo: patagonia ibiliz. satorra kirol elkarte. vital kutxa fundazioko aretoan

18.

ANTZERKIA > antzerki arabarraren I. erakustaldia: 'euskabaret'. helduentzat. elebiduna
zigoitiko zentro soziokulturalean, 20.00etan
ama-lur kultura koordinakundea. www.ama-lur.com

EUSKAL COMEDY GAUA

> film laburrak, antzerkia, umorea: kike amonarriz, jontxu chao, aluna&esnaen trilogia...
amurrio antzokian (5 €) informazio gehiago: amurrioko udala

19.

MENDI IRTEERA > santa lucia- kamaraka-goikogane (3 orduko ibilaldia)
audioko elkarte batekin, zonaldea ezagutu eta elkarte bera ezagutzeko. elkarte bertan bazkalduko irteera: lubaki elkartetik, goizeko 9:00etan izena-ematea: azaroaren 12a baino lehenago (lubaki elkarte: astelehenetan, 20:30ean / edo 626915984 telefonora deituz)

ANTZERKIA

> pailazoak: 'clin-clan-clown'. shambu antzerkia. euskaraz
montehermosoko falerina lorategian, 18.30ean (1€)
www.vitoria-gasteiz.org

20.

GEU GASTEIZ MENDI-TALDEA (GEUREKIN MENDIRA)

> berretin (1226m) irteera: loaina plaza. goizeko 9.00etan. goizeko ibilaldia. arduraduna: iñaki 945 146 296

ANTZERKIA > 'ama bat niretzat'. umeentzat
amurrio antzokian, 17.00etan (3 €)

ZINE FORUMA

> filma: zehazteke. ondoren, eztabaida
lubaki elkarte (salbador azpiazu, 2), 18.00etan

21.

EUSKAL HERRIKO I. IKUS-ENTZUNEZKOEN RALLYA

> izen-ematea: azaroaren 21a baino lehen
informazioa: www.topagunea.org

22.

KULTUR ERROTA. KONTZERTUA

> matxura pop-rock taldea
geu elkartearen eskutik
parral tabernan, 20.30ean

24.

GASTEIZKO IRAKURLE KLUBA

> graham greene, giza faktorea, ibaizabal 1997 [1979]
geu elkartearen eskutik
hikaatenean (pintore kalea, 13), 20.00etan

27.

ZINE FORUMA

> filma: zehazteke. ondoren, eztabaida
lubaki elkarte (salbador azpiazu, 2), 18.00etan

29.

PARRAL TABERNA

10. urteurrena
> zenbait ekitaldi

ZINEA

III. fant-cortada jaialdia

1.

> PARRAL TABERNA
10. urteurrena

> TXAN MAGOA,
amurrio antzokian

2.

> PARRAL TABERNA
10. urteurrena

> ANTZERKI ARABARRAREN I. ERAKUSTALDIA:
dibertente-kukubazar teatro ('la lentejuela excéntrica'), euskaraz. zigoitiko zentro soziokulturalean, 20.00etan (helduentzat)

3.

KONTZERTUA

> benito lertxundi,
amurrio antzokian. 21.00etan (15 €) [gasteizen, abenduaren 22an, principal antzokian]

4.

IKASTAROK EUSKARAZ
> perkusioa. azaroak 4, 11,
18, 25
aldabe gizarte etxean,
22.00etatik 00.00etara
www.gauekoak.com

12. ANTZERKIA

> bolaluma. txotxongiloak.
kixka taldea
montehermosoko falerina
lorategian, 18.30ean (1€)
www.vitoria-gasteiz.org

KONTZERTUA

> sólo los solo
azkena aretoan, 22:00etan

16.

JARDUNALDIK

> mendi ikus-entzunezko-jardu-
naldiak
piolet kapitaina espedizioa: gas-
herbrum 2
satorra kirol elkarte
vital kutxa fundazioko aretoan



24. KONTZERTUA

> ideofunk (jazz fusion)
montehermosoko falerina
lorategian, 20.00etan
www.vitoria-gasteiz.org

3.

> EUSKARAREN NAZIOARTE-
KO EGUNA
ekitaldien berri emateko: geu-
gaste@grn.es / geu@geugas-
teiz.com

euskal herriko 1. ikus-entzunezkoen rallyak, euskararen erabilera eragitea helburu

gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa
sustatzeko asmoz, euskal herriko 1. ikus-
entzunezkoen rallya antolatu du topagunea
euskara elkarteen federazioak. rallya abenduaren
17an izango da, eibarren. bertan parte hartu
nahi duten 16 eta 35 urte bitarteko gazte
euskaldunek izena eman beharko dute, azaroaren 21a baino lehen.
ikus-entzunezkoen rallya, gehienez, hiru minutuko ikus-entzunezko
lana sortzean datza, lehiaketa egunean eta eibarren kokatuta;
askotariko lanak izan daitezke, ez da zertan metraje laburreko filma
izan. lanen gaia lehiaketaren egunean bertan jakitera emango da.
parte-hartzaileek gai horretan oinarritutako lana aurkeztu beharko
dute, euskaraz ekoiztuta. alde horretatik, hizkuntzaren presentzia
ezinbestekoa izango da. guztira, 900 euroko hiru sari emango dira.
informazio gehiago: www.topagunea.org



antzerki arabarraren 1. erakustaldia

azaroaren 3tik eta abenduaren 30era bitartera arabar egindako
antzerkia ikusgai izango da zigoitiko zentro sozio-kulturalean, ama-
-lur kultura koordinakundeak antolatuta. euskaraz eta gaztelarazko
lanak antzeztuko dira. horratx egitarau osoa: azaroak 3, traspasos,
'el tiempo herido'; azaroak 4, panta rey, 'alaia'; azaroak 12, teatro
paraíso, 'mi odisea'; azaroak 18, euskabaret, elebiduna; azaroak 25,
la patro teatro, 'lección de orgasmo I'; abenduak 2, dibertente-
kukubazar teatro, 'la lentejuela excéntrica', euskaraz; abenduak 16,
porpol teatro, 'leire hasiberria'; eta azkenik, abenduak 30, free
pelota-ramon monje, 'la historia de ruso'.

parral tabernako astearte kulturalak eta 10. urteurrena

gasteizen, oro har
kulturren eta bereziki
euskara eta euskal kulturren
erreferente garrantzitsua
den parral tabernak
ikasturte berriarekin batera,
eta badira 10 urte, eta urtero
legez, asteartero ekitaldiak
antolatzeaz ekingo dio
azarotik aurrera (guztia
20.30ean-ikus. agenda), hile
honetako egitarauan musika
eta euskara nagusi direlarik.
hilaren 29an eta abenduaren
1 eta 2an, berriz, 10.
urteurrena ospatuko dute.
zorianak parral!

'ehungarrean hamaika-lauaxeta 2005' egitasmoa

kantari parte-hartzaileak: mikel
urdangarin, gari, eñaut elorrieta, rafa
rueda, jabier muguruza, anje duhalde,
txuma murugarren, petti, xabier
montoia, xabi strubell eta francis diez.
lauaxeta idazlearen inguruan egindako
egitasmoaren zuzenakoa. edorta
jimenez idazlea eta argia agirrezabal
aktorearen partaidetzarekin.
egitasmoaren zuzendaria: rafa rueda.
musikariak: rafa rueda (gitarak), david
gonzalez (baxua), rufo urbina (bateria),
mikel azpiroz (teklatuak). azaroak 8
bilboko arriaga antzokian. 20.00etan
www.hotsak.com

euskal comedy gaua

laburmetraiak & antzerkia
& umorea

amurrio antzokian propos-
amen berria duzu. euskal
umorerik onena abia-
puntutat harturik, gau ezin
hobeia pasa dezakezu.

'euskal comedy gaua'
izenburupean, aldizkako
hitzordua aurkeztera datoz. horren bidez, sormen-
arlotz guztiak hartu (zinea, antzerkia, telebista...) eta
lehertu arte gozatzea da asmoa. ekitaldi bakoitzean,
hainbat artista eta obra izango dira bertan. ikuskizunean
hizkuntza-nahasketa izango da: umorista ezagunen
umorea zuzen-zuzenean, zine-lan proiektzioak.. eta
hori guztia, ahal dela, euskaraz eskainita. umoristak:
kike amonarriz, jontxu chao aktore eta aurkezlea. film
laburrak: altunaren eta esnalen trilogiaren gaineko
birpasa: txotx (1997), 40 ezetz (1999) eta topeka
(2003) (euskaraz) / éramos pocos (2005); borja
cobeagaren laburmetraia hau amurrio estreinatuko
dugu; aktoreak: marivi bilbao, ramon barea eta
alejandra tejera (gaztelaniaz). azaroak 18. amurrio
antzokian. sarrera: 5 euro. alde aurretiko salmenta:
amurrio turismo bulegoan, edo gasteizen (arriaga
megadendan).



ernestina de champourcin, emakumea eta kultura XX mendean. nazioarteko kongresua

aurren ernestina de champourcin
poeta gasteiztarraren mendeurrena
betetzen da. 27ko belaunaldiko kide
izandako emakume bakarrenetakoa
dugu. bere ibilbidea: 1936 arteko
literatur jarduna, mexikoko erbestea (lan
poetiko berriak eta itzulpen-lanak bertan egin
zituela), eta madrilerako itzulera (bertan hil zen
1999an). emakumea eta kultura ardatz, nazioarteko
kongresu honek omenaldia egin nahi dio ernestina
de champourcin-i bere bizitza eta ibilbidean
murgilduz, bai eta kultura arloan XX. mendean
barrena emakumezko aztarna utzitako beste
emakume aztertu ere. kongresuan ekimen
desberdinak antolatu dira eta idazlearen familia ere
bertan izango da. azaroak 10 / azaroak, 16-18.
informazioa: xuxurlak@yahoo.es



GEU

laguntzailea:

Obra Social

Caja Vital  Vital Kutxa

Gizarte-Ekintza



[aht gelditu! elkarlana]

AHT-REN INPAKTU

nekazal sektorearen biziraupena eta baserrien bideragarritasuna arriskutan jarriko duen lur-galera ekarriko du (larreak etxaldeak eta baserri lurrak txikituz eta aldatuz), eta ekosistema ugari izango dira afektatuak

Organismo bizien eta ingurunearen arteko harremanak aztertzen ditu ekologiak, elkarren arteko oreka dinamikoek dagokion arloan. Bizi-sistemak elkarren menpekoak dira, maila bakoitzak bere ingurune osoarekin elkarrekin eta komunikatzen duelarik. Ildo honetan, ideiak ezagupenak eta bizi-moduak ez dira azalezko apaingarri hutsak, ondorio zehatzak eragiten dituzten bizi-indarrak baizik. Gizartea, giza-kiak eta ingurune naturala egoera larrian daudela ikusten dugu egun ikuspegi egozentrista eta ez-globalizatzaile batek boikotaturiko bilakaeraren ondorioz, bai ingurugiroarekiko eta bai gizarte harremanetan ere iharduera esplotatzaileak eta parasitarioak nagusitu direlarik. Eta hala, AHTak Euskal Herrian eragingo duen hondamendi ekologikoa hain da zabala, ze imajinatzea bera ere gaitza gerta dakiokela edonori. Batetik, AHTaren azpiegiturek behar dituzten ezaugarri zurrinak daude (gutxienik 3.200-7.000 metro bitarteko erradioko kurbak, gehienik %1,2 - 1,8ko maldak) eta afektaturiko lurraldearen izaera kontsideratuz gero, eraso itzela ekarriko du zalantzarik gabe; eta hori, trazaketaren eraikuntza lanengatik ez ezik, AHTaren esplotazioa ahalbidetzea helburu duten alde zaurerako, bitarteko eta ondorengo ekintza guztien kausaz, ondorio katea amaigabea erreproduzitzen. AHTaren eraikuntzak neurri handiko 128 km tunelen zulaketa dakar euskal mendietan (Aralarreko tunela: 11,2 km; Arlaban: 8,8 km, Udalaiz mendien azpian eraiki asmo duten "Euskal Y"aren trukagailua edo korapiloa 6,5 kmko tunel batekin eta 4 kmko beste birekin; Zumarraga azpiko 5 kmko tunela; Bedaioko 5 kmkoa;...), orotara 118 tunel suposatuz, 55 biaduktoren segida; eta "lurgainetik", hau da, mendi mozketak, lur-betelan eta hondakindegien artean igaroko diren beste 217 km trazaketa. Lur mugimenduen kopurua 65.000.000 metro kubikotan kalkulatu da, obretarako hurbiltze pistak kontutan hartu gabe (Irurtzun-Andoain Autobia-

ren obrak baino lau aldiz gehiago).

Horrek guztiak, nekazal sektorearen biziraupena eta baserrien bideragarritasuna arriskutan jarriko duen lur-galera ekarriko du (larreak etxaldeak eta baserri lurrak txikituz eta aldatuz), eta ekosistema ugari izango dira afektatuak: pagadiak, haritsiak, artadiak, urbazterreko basoak, sastrakak, estepak, aintzirak eta ibaiak, harpetako ekosistemak (lur-azalerakoak baino askoz ere delikatuagoak eta arriskutan daudenak)... Nafarroari dagokionean, zehazki, Nafar Gobernuak txosten batean dio "inpaktu kritiko ugari" eragingo dituela AHTak, eta babesturiko 41 naturgune afektatuko ditu. Ondorioz azpiegituren "baliagarritasun publikoa" (??) espezie eta eremu naturalen babesaren baliagarritasun publikoaren gainetik ezartzen da berriro. AHTak modu zuzenean edo zeharka afektaturiko espezieen kopurua 40.000koa litzaiteke; 2.500 landare mota, hauetarik %81 atzerapenean aurkitzen direnak, eta 96 endemismo kantabriko-pirenaikoak izanik (hau da, lurralde hedapen txikia eta poblazio urriko espezieak, alegia), Saxifraga hirsuta sub. paucicrenata, HARRAUTSI, eta saxifraga trifurcata, adibidez, Aralar, Udalaiz eta Ernio-ko karearizko mendizerretako harkaitzetan aurkitzen direnak, edota Euskal Herrian bakarrik dagoen berezko endemismo hau ere, Armeria euskadiensis alegia. Faunari dagokionean 9.000 espezie hezurgabe; desagertzeko zorian dauden 9 anfibio mota eta 12 legez babestuak daudenak, 12 narrasti desagertzeko arriskutan eta 15 legez babestuak...; 49 ugaztun mota (12 legez babestuak); habia egiten duten 150 hegazti mota (105 legez babestuak) eta 50 migratzaile; 23 arrain espezie (9 desagertzeko arrisku larrian)... Hala, katalogaturiko 12.500 landare eta animalia mota eta katalogatzeko falta diren beste 25.000 inguru, hezurgabeak gehienak.

AHTaren eraikuntza lanek eta funtzionamenduak orain arte naturaren kontra egindako erasorik bortitzenetakoa ekarriko luke.

EKOLOGIKOA

Hala balastoa, zementoa eta harriak pilatzeko harrobien gainezko ustiaketa eta zabalaketa, horrek suposatzen duen ingurugiro eraso larri eta bereziarekin, halaber, sima eta lurrazpiko errekaz josiriko zonalde karstiko afektatuetan kalte handiak eragingo ditu (Aralar, Ernio aldea, Udalaitz...), bertan aberastasun natural handia gordetzen delarik akuiferoen txikizioa eta lurpeko urgeruza freatikoen jeitsiera; poblazioen isolamendua dakarren "barrera efektua" eta ondorioz hainbat espezieren desagertze arriskua eta beste batzuen izurritea emendatuz, AHTak sortzen dituen zaratak eta bibrazioak galantak dira bestalde, fauna zein jendearen osasunean ondorio kaltegarriak eraginez; hegaztien hilkortasunaren gorakada; eremu magnetiko indartsuak eragiten ditu AHTaren muntaia elektriko garrantzitsuak, ondorioz zelulen funtzionamendua eta hainbat animaliren orientazio sistemak afektatuz; kutsadura elektromagnetikoari dagokionean, hormonal-sistema eta proteinen ekoizpenean eragiten du; erradiazio telurikoen alterazioa; airearen ionizazioa... AHTaren kontsumo energetiko ikusgarria makinek abiadura handian ibiltzeko garatu behar duten indar handiagoren ondorioa da; bestalde, tuneletan airearen erresistentzia handiagoa dela-eta, %25ean emendatzen da energia xahuketa, eta bidaiari ekin aurretik ere egin behar den motoreen beroketak ibilbidea egiterakoan gastatzen den argi-indar kopuruarekiko %25eko beste gorakada dakar; bestalde, argi-indarraren %15 katenarian galtzen da, eta mantentzen du sistemen gastua ere kontutan hartu beharrekoa da, aireztapen sistemak, e. a.

Ondorioz, Euskal Herrian proiektaturiko AHT sarearen argi-indar hornikuntza, neurri handienez zentral nuklearren bidez egingo litzateke, %70ean. Eta hala, estatu frantsesaren soberazko kapazitate elektronuklearri irteerak eskeintzen dizkio AHTak, argi-indar salmenta hau ekoizpen kostuen azpitik egiten delarik gainera ("Vente a bien Plaire"

izendapen ofizialaz), zeren eta AHTak fabrikatzen dituen multinazional franko-britainiarrak bide batez "bi mandatu" egiten baititu: alde batetik, Gec-Alshtom enpresako Garraio sailak abiadura handiko trenak esportatzen ditu, eta bestetik, talde enpresarial berdineko Energia sailak -Alcatel Alshtom, zehazki- zentral nuklearren hornitzaile nagusietakoa da. Neurri apalagoan, AHTa gas naturalezko (?) zentral termikoen bidez hornituko litzateke, %25ean, horrek Lemoizko zentralaren birmoldaketa eta gas naturalezko (?) zentral gisa martxan jartzea justifikatuko lukeelarik, Bizkaiako kostaldean proiektaturiko konplexu gasista bezalaxe (ondorioz itsas-ekosistemarekiko eraso, leherketa arriskua, e. a. suposatuz). Urtegi handien bidez ekoizturiko argi-indarrari dagokionean, berriz, horrek gaur egun auzitan dagoen desarroilismo hidraulikoa indartuko luke. Izan ere, ohizko trenaren kutsadura neurriak erabat gaitzuko lituzke AHTak, funtsean garraibide ezberdina bait da bai ikuspuntu teknologikotik eta bai ikuspegi ekologikotik, eta energia kontsumoa nahiz ingurugiro erasoari dagokioenean beste maila batekoa izanik. Abiadura Handiko Trena dela-eta, Euskal Herria mehatxatzen duen hondamendi ekologikoari buruz azalpen batzuk baino ez dira hemen azaldutakoak. Ohartarazi beharrekoa da ez direla urrundik ere bakarrak, AHTaren gauzapean zeharka bigarren mailako prozesu eta ondorio ugari eragingo bait ditu, hala nola kontzentrazio eta presio urbanoaren areagotzea, giza iharduerarekiko inpaktu sozio-kulturala e. a., gertaera hauek guztiak oro har lotura dutelarik narriadura ekologikoarekin eta epe luzera trazaketak berak sorturiko txikizioa baino inpaktu zabalagoa eragingo dutelarik.



Euskal Herrian
proiektaturiko
AHT sarearen
argi-indar horni-
kuntza, neurri
handienez zen-
tral nuklearren
bidez egingo
litzateke,
%70ean



SORKUN



[arg.: galder izagirre]

"Disko elegantea egin dut, baina baita arriskatua ere"

Euskal Herriko emakumezko ahotsik ezagun eta estimatuenetarikoa da Sorkunena. Kashbad taldearekin ezagutu genuen, eta haiekin hiru disko grabatu zituen. Ostean, hamaika kolaborazio egin ditu: Fermin Muguruza, Joxe Ripiau, Flitter, Ekon,... Bakarkako ibilbideari ekin zion duela ia hiru urte 'Onna' lanarekin. Orain bigarren lana kaleratu du, 'Duna'.

[edurne begiristain]

Estilo berriarekin dator oraingoan Sorkun: melodiko eta elektronikoagoa. Estilo aldaketa bai, baina ahotsa eta arima berbera antzematen da disko berrian: Sorkunena, finean.

Bakarkako bigarren diskoa duzu 'Duna'. Irakurritakoaren arabera, surf pelikula bati musika zuzenean jartzeko egin zizuten proposamenetik sortu zen lan hau kaleratzeko ideia.

Diskoa uste baino lehenago atera dut. Fermin Muguruzarekin biran nengoen, eta ez nuen asmorik disko berria epe laburrean ateratzeko. Nire asmoa zen bira lasai bukatzea, eta denbora tarte bat hartzea hurrengo diskoan pentsatzeko. Baina biran nengoenean ekimen batean parte hartzea proposatu zidaten: surf pelikula bati musika zuzenean jartzea. Ideia izugarri ona iruditu zitzaidan. Orduan, buruari bueltak ematen hasi nintzaion, eta lanean hasi. Azkenean surf pelikularen kontua ez zen atera, espazio eta denbora kontuengatik, baina ideia piloa hartu nituen. Nik gidoia idatzita utzi nuen, korte, kanta, eta erritmoak bilduz, eta ostean ohartu

nintzen material ugari neukala bilduta. Argi ikusi nuen filmarena ez zela aterako, baina bai kriston disko bat. Eta horrela izan da.

Oinarrizko ideia hori islatzen da diskoan, izan ere, kantez badute kutsu berezi bat, film sonorizatuen kutsua.

Nik prestatu nuen gidoian kutsu hori sumatzen zen. Surf pelikula bat zen, baina niri otu zitzaidan korte bakoitzak film kutsu desberdin bat islatzea: 70. hamarkadako pelikula bat saxo eta "gua-gua" askorekin; beldurrezko bat, teklatu askorekin; bidaiatzeko film bat, piano eta airezko tresnekin... Hori izan zen jokoa. Horregatik, jende askok esan dit diskoak soinu banda baten kutsua baduela. Ez nuen uste hori lortu behar genuenik, baina hala gertatu da.

Gustura geratu zara emaitzarekin?

Bai, oso gustura.

Nola definituko zenuke diskoa?

Oso disko elegantea da, baita arriskatua ere.

>>

**>errenteria sorleku
Sorkun Rubio
Errenterian jaio zen
1977an. Han bizi
izan zen 1999ra
arte. Donostia ere
izan du bizileku.
Ostean, Gasteizen
bizi izan da duela
gutxi arte, eta orain
Agurainen du etxea.**



>> Arriskatua, zergatik?

Rock mundutik natorrelako, eta jende gehienak hortik ezagutzen nauelako. Eta, akaso, haientzat mundu horretatik aldentzen naizelako lan honetan... Baina, berdin dit, disko bakoitza desberdina izatea espero dudalako.

Musika estiloan aldaketa handia sumatzen da. Askoz melodikoagoa da 'Duna', 'Onna' baino.

Bai, bai. Saxo-baritono eta teklatu bat daude, gainera, eta hori asko nabaritzen da. Horregatik fankya dago, bossa-nova erritmoa, ritman-bass...

Nola uste duzu hartuko dutela estilo aldaketa hori zure jarraitzaileek?

Ez dakit. Memento orain arteko kritikak onak izan dira. Baina hori zen neukan beldurra, hots, nola hartuko zuten aldaketa hau betidanik Kashbad eta Sorkun entzun dutenek. Hala ere, jende gehiena harrituta dagoela uste dut, baina onera harrituta.

Hitz gehienak zeuk idatzi dituzu? Zertan oinarritu zara kantak idazterako orduan?

Ez dut euskara horrenbeste kontrolatzen sekulako testuak idazteko. Saiatzen naiz oso ideia zehatzak islatzen kantetan, asko kontatzen dutenak, baina gehiegi sakondu gabe. Batez ere saiatzen naiz musika aldetik esaldiak politak geratzea. Esaldiak musikalak izatea eta politak geratzea, hori da nire asmoa. Baina, letrei ez diet lehenasuna ematen.

Diskoaren ekoizpen lana luzea izan da? Zaila?

Ez da luzea izan, zatikatuta egin dugu. Hiru hiletan grabatu dugu, hamabost egun hilero. Diskoa oso entseiatuta zegoen. Urte eta erdiz lokalean sartuta egon gara, entseiatzen, eta ondorioz grabazioa azkarra eta erraza izan da. Uste baino lehenago ere bukatu dugu.

Bideoklipa ere egin duzue. Diskoan argazki politak agertzen dira. Irudiari garrantzi berezia eman nahi izan diozu lan honekin, ezta?

Bai, irudia zaindu nahi izan dut. Gogo handia nuen estilo edo diseinu bat frogatzeko.

Diskoari zentzua ematen dion estiloa islatu nahi nuen. Diskoa hartu edo bideoa ikusi, eta ikus-entzulea harrapatzea nahi nuen... Irudia zaindu nahi izan dut. Kalean modu batez janzten naiz, baina taula gainean jokia-festa-mozorro kutsu bat dago beti, eta horri garrantzia eman nahi izan diot.

Zuk esana duzu sortzen dituzun kanta guztiak zuzenean jotzeko sortuak direla. Hori al da zure asmoa?

Nik kanta bat egiten dudana bakoitzean, zuzenean ikusi eta irudikatu beharra dut lehendabizi. Kanta bat egiten badut, baina ez badut neure burua eszenatoki batean ikusten kanta hori abesten, ez dit balio.

Noiz konturatu zinen kantatzeko moduko ahotsa zenuela?

Bost urte nituenean, ispiluaren aurrean abesten edo musika grabatzen ibiltzen nintzen. Orduan ez nuen ezer planteatzen. Une oro abesten egoten nintzen etxean, besterik gabe. Baina 17 urte nituenean Kashbad bazegoen, eta taldekoek bertan abestea proposatu zidaten. Emakumezko baten ahotsa behar zuten, eta horrela sartu nintzen.

Zer izan da zuretzat Kashbad?

Kashbad nire familia bailitzan daukat. Zazpi bat urte eman nituen bertan. Oso gazteak ginen, baina aldi berean oso disziplinuak. Lan erritmo ziklikoa generaman: diskoa egin, entseiatu eta zuzenean jo. Kashbadekin asko ikasi nuen.

Bakarkako ibilbidea ezagututa, talde batean parte hartzea gustatuko litzazuke berriro?

Ez, hori oso argi daukat. Mementoz behintzat ez dut talde batean egon nahi. Talde desberdinetan egon naiz jada: Kashbaden denok hartzen genituen erabakiak; Ferminekin kontrakoa izan da, berak erabakitzen zuen eta nik kantatzen nuen; eta, orain, neuk erabakitzen dut. Uste dut gauzak argiegi ditudala, eta ez dudala talde batean aritu nahi, eta besteekin erabakiak hartu behar izatea. Lan handia da. Uste dut, gainera, ahots asko daudenean iritzia ematen, lanarentzat traba dela.

Zer da musikan lortu nahi duzuna?

Nahiko nuke kreatibitate nahikoa izan diskoak ateratzeko gai izan nadin, zuzenean jotzen jarraitzeko, konposatzen jarrai dezadan... Ziklo horretan jarraitu nahiko nuke. Hori da espero dudana mementoz.

Azken bizpahiru urtetan talde asko sortu dira Euskal Herrian. Nola ikusten duzu egoera?

Ez dakit, ...sentsazio kontrajarriak daukat. Alde batetik, talde asko daude, baina soilik lau bat baino ez dira ezagutzen. Bestetik, inor gutxi doa kontzertuetara, baina gero eta musika areto gehiago daude Euskal Herrian, eta aldi berean, nazioarteko talde ugari datoz hona jotzera... Beraz, ez dut ezer ulertzen!! Jada ez goaz kontzertuetara, ez lehen adina behintzat. Baina gero eta talde eta areto gehiago dago. Nire ustez jendea erakartzeko gaitasunean dagoela gakoa. Berdin du zer egiten duzun, musika ona ala txarra, ez baduzu jendea errakartzeko gaitasunik ez duzu ezer jango. Hori lortzen da eszena bat sortuz, hau da, zure kontzertuak jendearentzat topagune bat izatea lortu behar duzu.

Emakume asko sartu dira musika munduan azken boladan. Bazen garaia, ezta?

Askok poztzen naiz. Uste dut jendeak gogoia duela emakumeak artea egiten ikusteko. Rockaren munduan, gainera, kokoteraino gaude gizonezkoak ikusteaz (kar, kar!). Emakumeak ikusteak freskotasuna ematen du. Nire kontzertuetan neska asko daude, eta oso harro nago horretaz.

Hemendik aurrera zein asmo duzu? Lan berriaren promozioan bete-betean sartuta egongo zara...

Euskal Herrian kontzertuak ematen jarraituko dut diskoa aurkezteko. Urtebete jotzen eman nahi dut, datorren urteko urria bitartean. Madrilera joango naiz, han promozioa egin nahi dut eta. Baita Kataluniara ere. Gogo handia daukat Katalunian jotzeko, hemen egiten denarekin sentsibiltate berezia dutelako han. Kanpora ere joan nahiko nuke, baina asko aurreztu behar da horretarako. Ikusiko dugu.●



>di-da

Musika talde bat: MIA.
Abeslari erdi ingeles-indiarra da. Duela gutxi kausitu dut eta harrapatu nau.

Irakurri duzun azken liburua:
'La calle de la judería'.

Azken bidaia: Cadizera, Caños de Mecera.

Azken kontzertua: Azkena Rock festibala.

Zer egiten duzu aisialdian?
Zinemara joan eta Sagues-eko murruan eserita egon itsasoari begira.

Eguna ala gaua? Gaua.
Gasteiz ala Errenteria?
Donostia.

[maite lekue & saioa fdz. de arangiz]

telebista

"Telebista zeharo hezigarria dela uste dut. Norbaitek pizten duen bakoitzean, ondoko logelara noa liburu bat irakurtzera", zioen Groucho Marx-ek. Hausnarketa hau kontuan hartuz, egungo telebistaren kalitatearen inguruko eztabaida plazaratu nahi izan diegu gasteiztarrei. Honatx jasotakoa:

1. Zer edukin soberan dago egungo telebistan?
2. Eta zuk zer gehituko zenioke?
3. Zein da zure telebista saio gustukoena?



David Sagastume, musikaria

1. Lehenik eta behin, futbola kenduko nuke. Egia esan, ia-ia dena kenduko nuke, filmak izan ezik. Horrez gain, Garciren programa desagertaraziko nuke, zalantzarik gabe!
2. Orokorrean esanda, kultura falta zaiola uste dut. Baina ez eliteentzako kultura, guztiontzako kultura baizik.
3. Filmak orokorrean, Metropolis eta La2 katean agertzen diren debateak.

Jonathan Tibaduiza, tabernaria eta ikaslea

1. Gauza piloa. Gauza asko kendu behar dira, beste asko sartu ahal izateko. Adibidez, interes kulturalako programak, pelikulak, etab. Telebista txutxu-mutxu saioz beterik dago eta niretzat gehiegizkoa da hori.
2. Jendearen interes kulturaleri erantzuten dieten edukinak behar dira egungo telebistan.
3. Días de Cine saioa, Metropolis eta La Mandrágora.



Goiatz Murua, podologoia



1. Txutxu-mutxuzko programak. Ni behintzat nahiko aspertuta nago jada programa hauetaz.
2. Ingurumenari buruzko gaiak gehiago landu behar direla uste dut, baita albisteak gehiago sakontzea beharrezkoa dela ere. Horrez gain, entretenimenduzko saioak ere falta dituela uste dut.
3. Egia esan, bat ere ez. Ez dut telebista asko ikusten. Zeozer esatekotan filmak esango nituzke, ikusten dudana gauza bakarra baitira.

IDAZLEENZUTABEA

GAZTETXEA ETXE BAT DA

[gerardo markuleta]



Gazte izatea ez da lehengo gauza bera. Orain nahikoa da eskuko telefonoa, mp3-a edota kamera digital bat opari hartzeko edadea izatea, merkatuentzat automatikoki "gazte" mailara igarotzeko. Beste muturrean, egun guztia eguneko zentroan emanda ere, pentsio txukun samar bat izatea nahikoa, gazte izateari -erosle, alegia- sekulan ez uzteko.

Baina, goi eta behe aldeko zabaltze hori gora-behera, gazte-gaztearen betiko definizioak bere horretan dirau: diru gutxi, eta hori ez norberak irabazia; autorik oraindik ez, etxerik hain gutxi, sexu konpartitua ere nekez; eta halako mesfidantza orokor bat era guztietako ordutegi, agindu eta pertsona (adinez) helduen aurrean.

Gaztetxe batean, gazte dira galderak zein erantzunak, gazte erabakiak hartzeko moduak eta gazte ideiak garatzeko bideak.

Gaztetxe bat dagoen lekuan beti izaten da alkate bat. Oso sarri, alkate hori burusoila izaten da. Oso gutxitan, antiojuduna (eta betaurrekoak baditu, sobera dituela ematen du).

Gaztetxe bat botatzean, bada beti makina bat hondeatzeko makina, eta orube eztitsu bat salgai, edo plangintza urbanistiko peripatetiko bat.

Gaztetxea non ixten den, han eraikitzen da laster batean gazteleku bat; baina gazteak ez dira gazte berak izaten, edozein leku ez baita etxe. Gaztetxe bat eraisten denean, handik oso gutxira, handik oso gertu, beste pareta batzuk harrera alai egiteko kolorez janzten dira, temati.

Gaztetxea den lekuan dorrea nahi du alkateak. Kontuz, baina: tximistek dorreak izan ohi dituzte jomuga, ez alegiantzia zuloak. •



ION GAUNA

Ion Gauna 27 urteko **aguraindarra** dugu. Ikus-entzunezko teknikari gazte honek Gasteizen lan egiten badu ere, bere herrian bizitzea gustuko du oso.

Parrandazalea, baina kirolzalea ere badugu Ion. Alaia eta lagunekin egotea atsegin duena. Jatun ona eta gastronomian aditua ere badela dio, baita une honetan bere bihotza "hutsik" dagoela ere.

"Gaztetxe egunean ikusi zen moduan, Gasteizen gauza asko egiteko prest dagoen jendea badago"

[saioa fdz. de arangiz]

Duzun biziorik handiena?

Asko ditut, ohikoenak.

Eta bertutea?

Hori besteek esan beharko lukete.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Nagoen moduan jarraitzea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Politikariek.

GEU elkarte eta aldizkariaren berririk bai?

Bai.

Egunkari bat?

Bereziki, bat ere ez.

Telebista saio bat?

CSI eta 'El día después' gustatzen zaizkit.

Filmik gustukoena?

Azken urteetan, Amelie filma asko gustatu zait.

Jaki gozoren bat?

Odolki piper-beteak.

Fobiarik, beldurrik?

Oraingo ez diot ezerri beldur.

Oporrak non eta zertarako?

Edonon, gauzak ikusteko eta lagun berriak egiteko. Hondartza bainoago barnealdeko herriak ditut gustuko.

Nora ez zinateke joango?

Oporretarako hotel handietara (resort).

Leku bat?

Granadako probintzia osoa.

Liburu bat?

Asko gustatzen zaizkit, ezin dut bakarra aukeratu.

Kolore bat?

Kolore bizi guztiak.

Musika gustukoena?

Memento honetan, Los Delinquentes taldea.

Gorputzeko atalik politena?

Irribarrea, akaso...

Zer da Gasteizek duen onena?

Mendia hurbil dagoela eta denborarekin ingurumena errespatzea lortuko duela. Gainera, Gasteizen gauza asko egiteko prest dagoen jendea badago, Gaztetxe egunean ikusi izan zen moduan.

Eta txarrena?

Hiriko politikari guztiak.

Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?

Baietz uste dut.

Eta Agurainen?

Baita ere, Gasteizen baino errazago gainera.

Amets bat?

Instrumentu bat jotzeko abilezia izatea.

Amesgaizto bat?

Nire ondokoak galtzea.

Zer eskatzen du herriak?

Herriak, finean, dirua eskatzen du, oso materialista bihurtu gara. •

• bere bihotza "hutsik" omen dago

• "euskaraz bizi daiteke gasteizen, eta agurainen errazago"

• "herriak, finean, dirua eskatzen du"

ZURE HARATEGIAK



Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 • GASTEIZ



**XABIER
AIZPEOLEA**

HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3 ☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

IRYSTA TABERNA

poteo eta pintxoak

Mateo Moraza 19

Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Udaberria
euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65

Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

ARTEPAN
Artisau

Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

LA RIOJANA
jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

Zure begiak, gure kontu



PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiataua.

Horixe duzu gure konpromisoa.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

'CANTON DE LA SOLEDAD
BAKARDADEAREN KANTOIA'

Musika-estudioa, JUANAN ROSen eskutik

Bat baino gehiago harrituko litzateke
'Kamchatka', 'El viaje de Carol',
'Visionarios', 'Veinte centímetros'
edota 'Las visitadoras' filmetako musika
Gasteizen egin dela jakitean.



[josune velez de mendizabal & edurne begiristain]

Juanan Ros da, adibide hauetaz gain, beste zenbait zinema filmetarako nahiz bakarkako musikari eta talderentzako musika Gasteizen ekoizten duena. Duela zortzi bat urte 'Canton de la Soledad' izeneko grabaketa estudioa ireki eta ordutik lan eta lan dabil Arabako hiriburuan.

Juanan Ros beasaindarra musika teknikari lanetan aditu eta jantzia iritsi zen Gasteiza 1997 urtean, gure hiriburuan behin betiko geratzeko. "Gustatu zitzaidan eta nire grabaketa estudioa bertan ezartzea erabaki nuen -azaldu du-. Garai horietan Viko eta gerora Katanga estudioak zeuden, gero desagertu eta gaur egungo Sonora sortu zen". Rosen iritziz, "Gasteizek duen tamainarako beti izan du ikus-entzunezko industria ugari, bi estudio profesional izatea asko baita". Bi asko ez ote diren galdetuz gero konpetentzia ez dela berez existitzen dio eta bere esanetan, "produkzio-etxe handiek zuregana jotzen dute zuzenean ezagutzen zaituztelako eta zure lan egiteko modua gustuko dutelako. Ondoren zuk musikariak lotu eta musika ekoiztu behar duzu".

Gasteiza heldu eta lehenbiziko enkarguak eta lanak Gipuzkoatik zetozkiola onartzen du Juanan Rosek: "handik nentorren heinean jende asko eza gutzen bainuen". Behin hona heldu eta "Gasteizko konpositore onenarekin" dio, jarri nintzen lanean, Bingen Mendizabalekin, alegia. Bingenekin lan ugaritan ibili da, hala nola, 'Kamchatka'n eta 'Skin deep' zine independentean, besteak beste. Bingen Mendizabal Gasteiztarraz gain, Ros Federico Facit konpositore argentinarrarekin, Pascal Gainerekin, Alfons Conde katalana eta Fernando Velazquez getxotarrarekin ere aritu da. Aldi berean, bertan Mikel Urdangarin Ispilue grabatzen aritu zen, Sant Pau 44 talde gasteiztarra, eta Benito Lertxundirekin ere jardun du.

Oraintxe Baleuko produktorentzat 'Olentzero' filmaren musika egin berri du; aldi berean, Araba Abesbatzarekin diskoa grabatu eta Debajazz jaialdiaren hainbat zuzeneko grabatu. "Hauxe dena astebetean egin dugu -dio-. Horrelakoa da lan hau, batzuetan dena batera dator eta beste batzuetan tantaka". Estudio txikia dauka Juanan Rosek, non jende asko sartzen ez den. "Horregatik 30 mu-

> bertatik pasatu diren musikarien lagin txikia

hasier oleaga, bateriajolea

San Pau 44 taldeko bateriajolea izateaz gainera, bestelako proiektuetan ere parte hartu eta hartzen du Hasier Oleagak. Horietako asko Canton de la Soledad estudioan grabatu ditu. Bere taldearen diskoa grabatzeaz gain, beste artista askok bezalatsu, zenbait filmetako soinu bandetan ere parte hartu du. Baina baita beste artista eta musikariren egitasmoetan ere: Boogalos taldearen diskoak grabatu zituen, Mikel Urdangarin eta Bingen Mendizabalekin batera Bar Puerto lana ere, Rogelio Botanzekin ere lan egin du... Azkenia, musika ikasteko ariketak irakasten dituen metodo baten grabaketa izan da. Oleagarentzat "plazer" bat da izan da Rosekin behar egitea, "oso eroso" sentiarazten dituelako bertara doazen musikariak. Gasteizen ez ezik, Euskal Herrian dagoen profesional onenetarikoa dela iritzi dio: "Detaile guztiak zaintzen ditu, eta zuk bakarrik musikan pentsatu behar izaten duzu".

koldo uriarte, teklatuja

Sarritan ibili da Koldo Uriarte musikaria Juanan Rosen grabazio estudioan. Bingen Mendizabalekin batera zenbait pelikularen soinu bandetan parte hartuz, San Pau 44 taldeko lehen diskoa grabatuz, publizitate egitasmoetan... Bertan, profesionalki oso lan "txukuna" egiten dela iritzi dio Uriartek. Halaber, azpimarratzen du Rosek ardura berezia hartzen duela estudioa grabatzera dihoazenak gustura egon daitezen, eta horretarako detaile txiki guztiak ederki asko zaintzen dituela. "Material tekniko oso ona dauka, Gasteizko hoberenetakoa", erantsi du. Laguna du, gainera, Juanan, eta horregatik akaso, irizpide bertsuak izaten dituzte lan egiterakoan. Alde txarrik aipatzekotan, bat: "Juananek grabazioen ostean ez du sekula parrandarik bota nahi, kar kar!".



> juanan ros. di-da



Zeinekin gustatuko litzaizuke lan egitea, orain arte ez duzulako egin? Jende askorekin, baina bat esatearren John Williams-ekin.

Zein izan da zure lanik kutunena? Kamtchatka.

Soinu-banda gogokoena? Memorias de África.

Gustuko duzun musikari bat? Gabriel Yared.

Film gustukoena? American Beauty.

Musikari erreparatzen al diozu zinemara zoazenean? Ez, baina egia da gu musikagileok bereziki sentsibleak garela musikarekiko, eta musikak funtzionatzen ez badu filmetik ateratzen zaitu nolabait.

Zein musika mota duzu gustukoen? Urteen poderioz jakiten duzu estilo guztietan musika ona eta txarra dagoela. Niri edozein estilotakoa gustatzen zait.

sikariz osatu orkestrarekin grabatu behar denean zuzenean kanpora goaz -aipatzen du-. Erbestera joan ohi gara, Bratislavara alegia, han merkeagoa suertatzen baita grabazioa, gutxiago kobratzen baitute". Orkestra txikiekin aritu behar

denean, ordea, Zeberio anaiek (Xabier Zeberio Oskorri taldeko biolin-jole eta Miguel Zeberio orkestra zuzendaria) Tolosan duten 'Et Incarnatus' delakoarekin ondo moldatzen da Ros.●

david sagastume, kontratenorea

Ez du gogoratzen David Sagastumek noiz izan zen Juanan Rosekin lan egin zuen aurreneko aldia. "Pelikulen soinu bandak grabatzen hasi nintzela uste dut, Bingen Mendizabalekin...", diosku. Euskal zuzendari batzuen film laburrak ere musikatu ditu bertan, bestelako egitasmoetan parte hartzeaz gain. Azken lana ere Canton de la Soledad estudioan grabatu du Sagastumek: Víctor Ullateren balet baten musika grabatu berri du Rosen gidaritzapean. Juanan Rosen lanaren inguruan hitz egiten duenean, laudorioak baino ez ditu: "Oso profesionala da. Ez die astindu handirik ematen musikariei, eta oso emaitza onak lortzen ditu esku artean duen materiala hain ona ez izan arren". Sagastumeren emazteak, Cristina Grelak, lan egin du halaber Juanan Rosekin. Perkusiojolea da bera, eta beti egindako lanarekin gustura asko geratu izan dela dio. Tratuan ere "atsegina" dela iritzio dio Sagastumek, eta ongi pasarazten dizula grabazioetan.

aitor saez de cortazar, samaniego abesbatzako zuzendaria

Aitor Saez de Cortazar Canton de la Soledad grabazio estudioan ibili zen, aurreneko, urrian. Gasteizko Diocesans Seminarioko 75. urtemuga dela-eta, disko berezia grabatu baitute bertan Samaniego eta Araba abesbatzek. Bost egun eman zuten Juanan Rosen laguntzarekin grabatzen, eta Saez de Cortazarrek adierazi digunez, esperientzia "oso ona" izan da. "Egindako lanarekin pozik geratu gara, eta Rosek ederki asko tratatu gaitu", diosku Samaniego abesbatzako zuzendariak.

LUBAKI

ELKARTEA

Gasteizko San Martin, Txagorritxu Ariznabarra auzoetako topaguna

Urriak 15, larunbata, eguerdiko 12.00ak Gasteizko Salvador Azpiazu kaleko 2 zk.an. Ohikoa ez den giroak zeozer suertatzen ari dela iragartzen du. Liburudenda izandakoak bizia hartu du berriz ere.

[maite lekue]

San Martin, Txagorritxu eta Ariznabarrako auzokide batzuen ekimenez, topagune berri bat sortu dute Gasteizen eta baita jendaurrean aurkeztu ere, bere izena, Lubaki Elkartea.

LUBAKI EGITASMOA

Lubaki elkartearen egitasmoa orain dela 2 urte inguru sortu zen Gasteizko auzo batzuetan bizi zituzten gabezia eta beharrei aterabidea eskaintzeko xedez. San Martin, Txagorritxu eta Ariznabarrako hogeitamarren bat bazkidek eta hamarren bat kolaboratzailek osatzen dute egun Lubaki elkartea. Bere kideen artean, gazteak eta helduak ditugu, ideia eta filosofia ezberdineko jendea harremanetan jartzeko gunea izanik. Elkartearen proiektua, askatasunez eztabaida eta jarduera ezberdinak gauzatzeko bidea egitea da, baita aisialdi kultural kontsumistatik salto egiteko ateak zabaltzea ere. Euskal kulturaren bultzatzaile eta suspertzaile izan nahi du elkarteak, baita giza arazoen aurrean ezkerretik, kritika eta aniztasunetik ekimenak planteatzeko asmoa agertzea ere. Elkartearen ildo hauek lantzeko bidean, bazkideen asanbladetan hartzen dira erabakiak eta elkarteko bazkideen arteko autogestioa da funtzionamenduaren giltzarri nagusia.

TOPAGUNE BATEN SORRERA

Auzoak leku bilakatzen diren garai hauetan gero eta zailagoa da jendea bildu, adierazi, lan egin eta eztabaidatzeko gune bat aurkitzea. Honen aurrean Lubaki Elkartek bere ateak irekitzen dizkio hiru auzoetako asanblada, kolektibo eta gizabanako orori honekin ekimenak gauzatzeko, elkartzeko eta batzartzeko eskubideen alde eginez betiere. Honela ba, Lubaki Elkarteko kideek topagune hau auzokide guztiei

zabaltzen diete, betiere ezkerreko ikuspuntu anitz eta kritiko batetik zein euskal kulturaren garapen eta bultzadarekin konprometitutako norabidean lan egin nahi bada. Lubaki Elkartea topagunea den heinean, gazte asanblada baten sorrera ere ahalbidetu du, Trikuharri gazte asanbladarena hain zuzen ere.

LUBAKI SORTZEN

Lubaki elkarte bilakatu artean asko izan dira bere baitan egin beharreko lanak, eta hauen artean lokalaren txukuntzea eta oinarriak finkatzea izan dira zeregin nagusienak. Iragandako urtean lokaleko obretan ibiltzeaz aparte ekintza anitz aurrera atera dira Lubakitik, hala nola, hitzaldiak, mendi irteerak, argazki erakusketak, zein Korrika edota AEK egunerako elkartearen parte-hartzea bermatzea, besteak beste. Gaur egun aldiz, gune dotorea sortu dute bertako bazkideen lanarekin: liburutegia, taberna txokoa, bilgunea, sukalea, ordenagailu gunea, pelikulak ikusteko bazterra eta komunak txukundu baitituzte. Lokala atontzeko lanez aparte beharrezkoak izan dituzte bi urteren buruan astelehenero burutzen zituzten bilerak, elkartearen egitasmoa finkatzera oinarrituak izan direnak hain zuzen ere. Barne antolakuntzari dagokionez aldiz, batzorde desberdinetan banatu dituzte aurrera eraman beharreko funtzio guztiak, obretako komisia, komunikazio komisia, garbiketarak zein diruzaintzako komisiotako ardurak banatuz, hain zuzen ere. Obren amaierarekin batera auzokideen harrera baloratzeko garaian harridura eta interesa egon dela nabarmentzen du Iñigo Diaux bazkideetako batek, obrekin zeudenean errazago hurbiltzen zirela ikusminak jota bazen ere, eta egun aurreiritziek bere horretan jarraitzen dutela gaineratzen du gazteak. •

- topagune
- euskalgune
- ezker gune

txu eta nea & euskalgunea

[arg.: edorta sanz]



Aurkezpen eguna eta datozenak

Urriak 15ean egin zuten aurkezpena Lubaki Elkarte kideek. Bertan orain arte egindakoa ospatzeko parada hartu zuten eta emandako aurrerapausoa bestei helarazteko une bihurtu zuten. Txalaparta eta triki doinuek alaitu zuten San Martin auzoko oinezkoen bidea larunbat goizez, prentsaurrekoa eta aurkezpenaren sarrera gisa. Biñaspren gazte bertsolariaren hitzek gonbitea luzatu zuten elkartera hurreratzeko, eta bertan prestatutako otordutxo eta ardoa dastatzeko aukera izan zen elkartea ezagutzeko interesa zuenarentzat. Azkenik eta giro alaiari, etorkizunerako sortu duten topagunearekin lanean segitzeko, hurrengo egunetarako ekimenak luzatu zituzten.

- Gauzatutakoak: Urriak 16, Zizak batzeko txangoa Beriain mendira / Urriak 18, Jasotako onddoen azterketa eta hitzaldi mikologikoa
- Datozenak: Liburutegiaren sorrera eta egur taila tailerra eskainiko dira. Bai eta mendi irteera eta zine foruma ere (ikus. agenda)

Azkenik, Lubaki elkarte kideek aurkezpen egunean esan zituztenak gogora ekartzea besterik ez da falta: "Gure ekimenarekin bat egiten duen orori gogoratu nahi diogu elkarte ateak zabalik dituela bere ideiak proposatu eta gurekin elkarlanean aritzeko berauek errealitate bihurtzeko edo eta bazkide bezala parte hartzeko".



sorrera & ildoak

>"txagorritxu, san martin eta ariznabarra auzoetako bizilagun batzuek auzo hauetan dagoen bizitza falta ikusita eta auzo hauetan dagoen euskara aktibitate eskasia ikusita, orain dela urte bat lokal bat alokatu genuen san martin-en. lokal honekin nahi genuena zera da, auzo honetan euskaldunen arteko harremanak areagotzea eta lokala biltzeko erreferentzia puntu bezala erabiltzea; horretaz gain, beste auzokideei eskaintza kultural euskaldun bat dutela ezagutaraztea"

>lubaki elkarte kideek topagune hau auzokide guztiei zabaltzen diete, betiere ezkerreko ikuspuntu anitz eta kritiko batetik zein euskal kulturaren garapen eta bultzadarekin konprometitutako norabidean lan egin nahi bada

Sauré argitaletxeko 'Numenak' Euskarazko komikigintza

Betidanik liburuek eta komikiek ume, gazte eta helduen irudimena suspertu izan dute. Tamalez, egun, telebista horretara bideratzen genuen denbora berenagatuz joan da pixkanaka. Halarik ere, oraindik badira komikigintzaren artea bizirik mantentzen dutenak.

[saioa fdz. de arangiz]

Horren adierazle, Sauré euskarazko komikien argitaletxe arabarra eta argitaratu berri duen 'Numenak aita' komikia.

Azaroan lehendabiziko aleak argia ikusiko duen arren, ideia orain dela bi edo hiru urte jaio zela diote Arrasateko Unai Busturia 30 urteko gidoigile eta koloristak eta Julen Ribas 24 urteko marrazkilariak. Komikia bereziki gazteei zuzendua dago, dena den, egileen esanetan, edozeinek irakurtzeko modukoa da. Bertan euskal mitologiaren inguruko gaiak aurkitzeko aukera izango dugu eta horretarako 'Numenak aita' komikiak garatuko duen istorioa hiru aletan banatuko da, printzipioz, egileen asmoa urtean ale bakarra kaleratzea izaki.



Unai Busturia, gidoigile eta kolorista

Zertan datza zure lana Saure argitaletxean, eta zehazki, 'Numenak aita' komikian?

Nire lana komikiaren gidoia egitea da, baita guztiari kolore ematea ere. Hauxe da argitaratuko dudan lehen komikia eta berau aurrera ateratzea bi urtetako lana izan da. Ez denbora osoan, noski, nire irakasle lana eta beste zenbait lantxo tartekatut baitituz.

Arrakastatsua suertatzen al da euskarazko komikia?

Ez dakit oso ondo arrakasta hitza komikian neurtzen duten parametroak arrakastaz uler dezakegunarekin lotu daitezkeen. Hau da, iraupena litzateke arrakastaren sinonimoa. Azken aldian, komikia nahiko baztertua izan den hedabidea dugu. Orokorrean, estatuz kanpoko lanak erosi

eta argitaratzea bertakoa bultzatzea baino askoz merkeagoa eta errazagoa da. Hori dela eta, Sauré egiten duen lana aipatzekoa dela uste dut.

Zein da 'Numenak aita' komikian jorratzen duzun gaia?

Komiki honetarako, hain zuzen, zerbait hurbila burutzea pentsatu genuen, azkenik, euskal mitologiaren gaia aukeratzu. Azken boladan horrenbeste jorratu den mitologiaren gai honi ikuspuntu berria eman nahi izan diogu. Horrela, zenbait elezaharretan oinarritu gara eta iragana eta oraina nahastuz, pertsonaia mitologikoak gure garaira hurbiltzea lortu dugu.

Nola hasi zinen komikiaren munduan lan egiten?


Esan bezala, hauxe izan da nire lehen lan

profesionala. Hala ere, komiki azoketan argitaratzaileei istorio desberdinen proiektuak aurkezten hasi nintzen, Saure argitaletxeak proiektu honekiko konfidantza agertu zuen arte.

Komikiak betidanik gustuko izan al dituzu? Zeintzuk dira zure erreferentziak?

Beti izan naiz komiki irakurle, nire bizitza osoan zehar beti egon dira present. Txikitatik 'Capitán Trueno' eta 'Selecciones ilustradas' irakurri izan ditut, bai eta Ipurbeltz, superheroien istorioak eta manga ere. Egun, sarritan komiki frantsesak irakurtzen ditut. Erreferentziei dagokienez, ugariak dira, oso zaila da autore bakar baten izena ematea, jende askoren lana miresten baitut. •

aita' komikia sendotzen



Julen Ribas, marrazkilaria

Nolakoak dira 'Numenak aita' komikiaren marrazkiak?

Marrazkiak zein marrazteko era nahiko bigunak dira. Marrazki bizidunetako pertsonaiak gogora ekar ditzake gure komikiaren pertsonaien estetikak.

Zer dela eta bilakatu zinen komiki marrazkilaria?

Zaletasuna txikitatik al dator?

Oraintxe hasi berri naiz komikien munduan lan egiten. Beste edozein lanetan bezala, aurretik egindako lanaren erakusgarriari esker hasi naiz honetan, hau da, argitaratzaileari erakutsi eta berahala hasi nintzen lanean. Mundu honetan, diplomek gutxirako balio dute, garrantzitsuena orri zuriaren gainean egin dezakezuna erakustea baita.

Zaletasuna txikitatik al datorkizu?

Etxeko apaletan beti izan ditut komikiak; betiko 'Asterix eta Obelix', 'Tintin', 'Mortadelo eta Filemon', etab. Izan ere, Bartzelonan arte grafikoa ikasi ostean, komikien mundua gertuago eta hobeto ezagutu nuen.

Zeintzuk dira zure erreferentziak?

Zaila da esatea, asko dira eta. Niri marraztea gustatzen zait, baina ez bakarrik komikiak. Hauetaz gain, ilustrazioak eta koadroak margotzea edo disko baten azala diseinatzea ere badut gustuko. Hori dela eta, erreferentziak anitzak dira; pintore klasikoetatik hasita marrazki bizidunetako marrazkilarietaraino. Gakoa marrazten jakitea da, eta marrazkilaria on ugari daudela esan beharra dago. Nire gau-mahaian Frazetta, Wendling, Springer eta Guarnidoren lanak dira ohikoenak. •



cd-a

'gose'

taldea: gose | disketxea: oihuka | urtea: 2005

arrasateko hirukoa. ines osinaga (ahots eta trikia, ekon taldean ibilitakoa), iñaki bengoa eta tadeos (programazioak, bad f-line taldekoak). 'gose' taldeak trikia eta elektronika batzen ditu. oro har, erritmo lasaiak, dotoreak eta malguak. elektro-jazzaren tankerako abestiak (saint germain...). euskal trikiaren kultura irauli egiten du. testu lizunak. evaristo (gatillazo eta la polla records) euskaraz abesten, francis (doctor deseo)... laguntzaileetako batzuk dira.



aldizkaria

ostiela

39 zk. | 2005eko udazkena | 3 euro

OSTIELA! euskal kultur (?) aldizkaria da, hiruhilabetekaria, euskal herrietan zabaltzen dena, merkea bezain aberatsa, euskaldun heterodoxo arrunta, satirikoa baino zerbait gehiago, kultureta/kritikoa, umoretsu eta serioa, abertzale-epel edo euskaltzale-sutsu, bitxikeriazalea, irudi on, grafiko eder eta letra ugariren maitalea, erreportaje, elkarrizketa, komiki, iritzi emailea, edozein gizarte-politika-kultura-literatura gaietara muzin egiten ez diena...

>udazkeneko aleko edukia: lanpuestioia, lanaren kolokoia; iñaki seguroia; pako aristi; mikelazulo; precarias a la deriva; antonio perez (bizitza osoa arteari eskainia. cuenca); zuku festa; sexualitate; lana; kantu bat zure minari; zinea...

www.ostiela.com

ostiela@euskalnet.net



zinea

eros

Frantzia, EE.BB., Hong Kong | 2004 | Zuzendariak: MICHELANGELO ANTONIONI, STEVEN SODERBERGH, KAR WAI | Aktoreak: Christopher Buchholz, Regina Newni, Gong Li, Ele Kyats, Alan Arkin, Robert Downey Jr., Luisa Ranieri, Ming Chang Chen

Hiru film laburrek osatzen dute pelikula hau, hirurak erotismoa, sentsualitatea eta amodioaren lotura izanik.

The Dangerous Thread Of Things. Michelangelo Antonionirena.


Gaur egungo Toskanan. Bikote batek bere ezkontzako magia galdu egin du. Senarraren pasioa berpizten da emakume gazte misterioz bat agertzen denean.

Equilibrium. Steven Soderbergh-rena.

New York, 1955. Estresak jotako exekutibo bat bere oreka galdu duela jabetzen da, segur aski identifikatu ezin duen emakume batekin dituen amets erotiko jarraituengatik. Bere psikiatra laguntzen saiatuko da ezohiko sesio batean.

The Hand. Wong Kar Wairena.

Hong Kong, 1963. Chang jostun gaztea Hua neska sentsualaz maitemintzen da neurriak hartzen dizkion lehenengo aldian... Urtean zehar, nahiz eta emakumea maitemindu ez, Chang leiala izango da bere maitasun horrekin.



HERIOTZA HAUR LITERATURAN (I)

[txabi arnal gil]

Hitz egin behar al zaio bost urteko ume bati heriotzaren gainean? Zehaztu dezagun galdera: egingo al diegu berba umeei lagun maite baten heriotzaz? Eraman dezagun muturreraino: hitz egin behar al diegu umeei amaren heriotzari buruz? Bai? Nola? Noiz? Hezkuntza *curriculumak* honelako gai gogor eta tristeok aintzat hartu beharko lituzke? Prest al gaude irakasleok heriotzaren gaia garatzeko?

Egia esan, zaila, oso zaila gertatzen zaigu paperean luzatutako galderoi erantzun duina egokitzea. Hala eta guztiz ere, heriotzaren gainean hitz egitera ausartuz gero, badira gai ilun hau jorratu duten egileak. Badaude liburu triste eta ederrak. Besteak beste, Charles Dickesen *Oliver Twist* eta David Coperfield, edota Mark Twainen *Huckelberry Finnen Abenturak* liburu klasikoak etortzen zaizkit burura. Egia da titulu horiek haur literaturaren muga gainditzen dutela. Dena den, asko dira marrazki bizidunen bitartez egindako egokitzapenak, marrazkiok ikusle gazteei zuzenduta egon ohi direlarik.

Eta Euskal Herrian, zer? Ba al dugu berton sorturiko gai hau azaltzen duen libururik? Bai, badago. Aipa dezagun, adibide gisa, 2004 urtean Elkarlanean argitaletxeak kaleratutako Peio Añorgaren *Adio, Adio* lana. Liburu honek, aurretik aipatutako klasikoekin antzekotasun handia daukan arren (lagun maite baten galera gertatzen da), ezbeharraren ondorengo protagonistaren bizitza garatu beharrean, tragedia azpimarratzen du, hau da, heriotza eta honek dakartzan sentimenduak. Bestalde, Jokin Mitxelenaren irudiek, ilunak eta adierazgarriak, bikain laguntzen diote testuari tristeziaren sentimendua areagotuz. •



[erredakzioa]

■ gasteizko gaztetxea

itzela izan zen urriaren 8an gasteizko gaztetxeak jasotako milaka lagunen babes. aldi berean, antolakuntza, egundokoa. geuk ere bere tanta jarri nahi izan zuen. hemendik gure zorionik beroenak gasteizko gaztetxeari!

■ gasteizko gaztetxea hiru kilometrora urrundu nahi

gasteizko gaztetxea gaur egun dagoen tokitik hiru kilometro ingurura urruntzeko proposamena egin du pp-k udaletxean, 'ansoleta topagunea' proiektuaren baitan. alfonso alonso alkateak olarizu ondoko lursail batera eraman nahi du: gasteizko hegoaldean dago esparru hori, heraclio fournier kalean, otazu (araba) herrixkarako bidean. gazte asanbladak ez du proposamena begi onez hartu.



■ euskara, hizkuntza modernoa

euskara hizkuntza modernoa, freskoa eta gaurkoa dela adierazteko, eta euskarari aire berria eta berritzailea eman asmoz, euskararen historiako komunikazio kanpainarik garestiena jarri du abian gipuzkoako foru aldundiak: 'aire, aire!!! euskarari'.

www.erabili.com

■ betagarri, jiran eta biran

betagarri taldeak jira galanta gauzatuko du azaroan eta abenduan barrena, estatu batuetan eta europatik: 11n, san francisco izango dira, united irish cultural center-en; 15ean, los angeles-en, bluebeat lounge-n; 19an, boisen, basque center-en. eta abenduan, amsterdam, praga, munich eta berlin. ea bueltan zer kontatzen diguten. www.betagarri.com



■ euskararentelefonoa.com

euskararen inguruko kexak eta zorionak jakinarazteko behatokiak abian jarritako bide berria da euskararentelefonoa.com

aldi berean, orain arteko bide berberak ere erabil daitezke: 902194332 / telefonoa@behatokia.org

■ woody allenek kontzertua principal antzokian abenduaren 23an

estatu batuetako antzezle eta zuzendariak new orleans jazz band taldearekin joko du abenduaren 23an, principal antzokian. gasteizko kontzertua izango da euskal herrian emango duen kontzertu bakarra. ikusle txartela dutenentzat azaroaren 29an jarriko dira sarrerak salgai; gainontzekoek azaroaren 30etik aurrera erosi ahaliko dituzte, leihatiletan zein interneten bidez (www.vitoria-gasteiz.org/sarrerak). prezioak zehazteke daude oraindik. allenek eta bere taldekideek new yorkeko carlyle hoteleko kafetegian jo ohi dute. musika baikorra da euren eskaintza, ragtimearekin eta jelly roll mortonek edo louis armstrongek jorratutako tradizioarekin lotua.



■ micaela portilla urrian zendu zen

micaela portillak, arabako historiografiaren erreferente nagusietakoak, urrian utzi gintuen 83 urte zituela. aramaioeko eskola batean eman zituen irakasle lehen urratsak. ondoren, madrilengo geografia eta historia ikasi, katedra lortu zuen arte; eta hortik aurrera, aldi berean irakasle eta ikerlari aritu zen, ezinbesteko tandem bere bizitzan. arabako historiaren inguruko obra oparo eta anitz utzi digu: katalogo monumentala, testu-liburuak, bideak, dorreak, natura eta bizitza... bertako historiaren erreferentzia garrantzitsuak.



■ gure irratia. lapurdi

gure irratia euskal herri osoan 'gure lokala' izeneko kanpaina sakona egiten ari da aurtengo, uztaritzen finkatuko diren lokal berriak sortzeko 185.000 euro beharrezkoak direla eta.

otsailaren egindako lehen bertso saioaren ondoren, kanpaina areagotu eta indartu zen maiatza eta ekainean zehar ('zure rokanrola' diskoa, kontzertua durangon, zenbait ekintza oñatin...). orain, urritik hasita urtarilla arte berriz ere indartuko dute kanpaina hainbat eta hainbat ekimenekin: kantaldia biarritzen, 'zure rokanrola' kontzertuak tolosan eta baionan, dvd bat kaleratuko da, pilota partidak, durangon stand bat, bertso saioak... informazioa: www.gure-irratia.com

■ gaztetxulok 5 urte

gaztetxulo, gazteei zuzenduriko hilabetekariak 5 urte bete zituen urrian, eta hori ospatzeko, gaztetxulo-busa ibili zen harat-honat, euskal herritik zehar, aste batez. besteak beste, bost geldialdi nagusi egin zituzten, eta geldialdi bakoitzean tokian tokiko ikastetxe batean ekimen bana antolatu zuten, ikastetxe hauetako ikasleek euskal kulturaren egoera eta xehetasunak ezagutzeko aukera izan zutelarik, aldi berean, alor bakoitzeko protagonistekin iritziak trukatzeko aukera izaki. euskarazko kultura gaztearen diagnostia egitea izan zen ekimen eta solasaldion xedea. adibiderik adibide, honakoak, gaiak: gasteizen, koldo mitxelena ikastetxean, antzerki gaztea; donostian, k belaunaldia (euskal herriko musika talde berrien belaunaldia); baionan, bertsolaritza & rapa; zornotzan, gazteak eta fikzioa; eta iruñean, nafarroako kultur sorkuntza. www.bagera.net



Hezkuntza berezirako m

Egungo irakaskuntza sisteman dirauen heziketa premia da Gasteizko Lope Gereñu ikastetxeko bi irakasle hauek hezkuntza berezirako materialak sortzera bideratu dituen.

[arg.: edorta sanz]



[maite lekue]

MATERIAL PREMIA

Arlo honetan material gutxi dago oraindik, eta are gutxiago euskarri informatikoan moldatua; euskaraz ere ez dago ezer argitaratuta. Horren aurrean, Angela Fernandez logopedak eta Jose Manuel Beltran irakasleak komunikazioa eta lengoia lantzeko premia berezia duten ikasleekin lan egiteko programa bat sortu dute euskarri informatikoan eta euskaraz gainera.

PROGRAMA

Sinboloen bidezko hizkuntza (S.P.C.) erabiliz, hitz egiterik ez duten edo eta komunikatzeko arazoak dituzten umeei laguntza ematean datza sortu duten programa. Horretarako hizkuntzak dituen atalak lantzen dira: lexikoa, morfosintaxia, fonetika eta semantika. Hori dela eta, atalen sailkapenean ipuinak, irudiak, irudien irakurketa, olerkiak, asmakizunak, esaldiak luzatzeko tresnak, abestiak, errezetak, jolas grafikoak eta komunikazioarako taulatxoak aurki daitezke. CD-ROM formatupean sortu dute komunikazioa ahalbidetzeko tresna hau. Irudien bidezko komunikazio sistemak, hizkuntza bat erabiltzeko aukera eskaintzen die hizkuntzan atzerapenak dituzten umeei (garun paralitikoak, burmuinean lesioak dituztenentzat, autistak edo eta hizkuntzan atzerapena duten guztientzat, oro har komunikatzeko arazoak dituztenentzat, alegia).

OHOREZKO SARIA

Hezkuntza Berrikuntza 'Karmele Alzueta' Lehiaketan ohorezko saria lortzeak bi irakasle hauen lanaren argitaratzea ekarriko digu martxoan. Eusko Jaurlaritzak programa hau ikastetxe orori zabaltzeko aukera izango du eta, aurrerantzean, hizkuntzan arazoak dituzten ikasle guztiekin lan egiteko tresna berri bat izango dute hezitzaileek. Programa euskaraz eta gazteleraz sortu dute, nahiz eta euskara soilean argitaratuko den.

EMAITZA POSITIBOAK

Programaren etengabeko sorkuntzan umeekin egindako saioetan emaitza positiboak lortu dituztela diosku Angelak eta ikasleen komunikaziorako hizkuntza baliogarria dela. Nahiz eta programa argitaratze bidean izan, Jose Manuel Beltran eta Angela Fernandezek ez dute beren lanean etsi, beste proiektu bat baitute esku artean. Orain arte irudien bidezko hizkuntzan (S.P.C.) 150 programa baino gehiago sortu badituzte, egun Zeinu-Lengoaiara egokitutakoak ere prestatzen dihardute. Piktogramekin sortutako hizkuntzari eskuzko Zeinu-Lengoia gaineratuko zaio honela.

SORTZAILEAK:

Angela Fernandez eta Jose Manuel Beltran, Lope Gereñu ikastetxeko irakasleak.


BERRIKUNTZA:

Irudi eta zeinuen bidezko hizkuntzan (S.P.C.) eta Zeinu-Lengoia hizkuntzan material informatikoa euskaraz sortzea. 150 programa inguru sortu dituzte eta haietatik 40 argitaratuko dira laster batean.

ARGITARAPENA:

Martxoan aldean Eusko Jaurlaritzaren eskutik.

aterialak sortzen



✓ arlo honetan material gutxi dago oraindik, eta are gutxiago euskarri informatikoan moldatua; euskaraz ere ez dago ezer argitaratuta.

✓ sinboloen bidezko hizkuntza (S.P.C.) erabiliz, hitz egiterik ez duten edo eta komunikatzeko arazoak dituzten umeei laguntza ematean datza sortu duten programa

✓ programa euskaraz eta gaztelaraz sortu dute, nahiz eta euskara soilean argitaratuko den



geugasteiz.com

Varanasiko istorioak 5.-Dizipuluak

[jon arretxe]

Guru handi guztiek dituzte ikasle ugari. Gehienak txi-roak izaten dira, herri xehea, baina tartean aberatsen bat ere egoten da, eta denen artean maisuaren ogibidea ahalbidentzen dute, guruak euren dizipuluen ahalmen eta borondatearen menpe egoten baitira aurrera egiteko. Ganga ere sendo ibili zen orain dela urte batzuk Varanasiko Guru Dham tenpluan, ikasle atzerritar asko zeukanean joga nahiz filosofiako eskolak jasotzeko irrikaz. Talde handiak eratzen ziren goizero Krishnaren irudia gordetzen zuen eraikin oktogonaltan alboan, baina orduko egoera oparoa beheraka joan da, tenpluaren egoera bera bezala. Azken urteotan atzerriko ikasleok gero eta gutxiagotan egiten dizkiogu bisitak, eta zoritxarreko gaixo bat edo beste baino ez dauzka eguneroko ikasle, errupia erdirik ere ez daukatenak guruari eskaintzeko haren aholku edo laguntzaren truke. Egunotan ezagutu ditut dizipulu horietariko bi: Mantu eta Pappu.

Mantu goi mailako ingeles harrigarriaz mintzo da, lord-a balitz bezala, baina bere itxurak guztiz bestelako zerbait adierazten du: batetik oin hutsak, telazko praka zulatuak, artilezko jertse zaharra eta burua goitik behera biltzen dion bufanda zikina. Bestetik, errukia sentiarazten duen gizagaixo begitartea, koskor itzela eskuin masailan, eta bestelako errealitateak ikusten bide duten txori-begiak. Kordea galdu zuen behin, Gangak esan didanez, eta ez du berreskuratu. Gaur serio eta dotore galdetu dit, bere txilibitu ahotsaz, ea txiza egin zezakeen tenpluko zutabe baten kontra:

-Can I urinate here, sir?

Kanpora bidali du Gangak bere beharrak



asetzera. Gero itzuli egin da eta bere bizitzaren berri ematen hasi zait.

-I am an artist, sir -esan dit, duintasunez.

Antzeko izaera omen zuten bere guraso eta aitaita-amamek ere, baina artistatasun hori zertan datzan azaltzerakoan nahastu eta galdu egin da azalpen zentzugabeetan, hasieran neuri begira, gero bere buruarekin edo batek daki norekin mintzatuz.

Bigarren dizipulua, Pappu, bizitzan porrotik porrot ibili den gizon altu eta argala da, beldurra sentiarazten duen zoro begirada duena. Bere burua hiltzen saiatu zenean ere egin zuen porrot, tenpluko eraikin altuenetik lurrera salto eginda orkatilak txikitzea baino ez baitzuen lortu. Baliabiderik ezean, gainera, ezin izan zituen behar bezala sendatu, min etengabea ematen diote orain eta Gangarenera etortzen da egunero, zotinka, sufrimendua arintzeko zer egin ote dezakeen galdetzerat: bere burua berriro bota hil arte?

Ganga biak kontsolatzen saiatzen da ahal duen moduan, egun batzuetan umorea erabiliz, beste batzuetan seriotasuna... Eta jarrera berdinak tartekatuz esaten dit niri ere, bakarrik geratzen garenean, Mantu eta Pappu direla geratzen zaizkion azken dizipulu fidelak, beste guztiek alde egin diotela pixkanaka, adur onak bezala. •



ERREZETA

TXITXARRO BROTXETA ALI-OLI

[gamarrako ostalaritza eskola]

Osagaiak
(8 errazio)

- ✓ Txitxarro bat
- ✓ Moldeko ogi bi xerra
- ✓ Bi berakatz ale
- ✓ Perrexil sorta bat
- ✓ Oliba olioia eta gatza
- ✓ Baso erdi esnegain



Txitxarroa

Ondo garbitu eta bi solomotan atera. Solomoetako bakoitza 8 zati laukidunetan moztu eta eta zotzezko brotxeta bakoitzean bina zati sartu. Gorde hozkailuan.

Ogi birrindua

Ogi azala baztertu eta mamia birrindu makinaz xehe-xehe geratu arte. Berakatz eta perrexila fin-fin txikitu eta ogi mamiarekin nahastu.

Olioia perrexilarekin

Perrexila ur irakinetan gardostu (sartu-atera), ur hotzetan freskatu eta ondo lehortu paper artean. Basokada bat olio sutan jarri epeltzen perrexilarekin batera; pixka bat berotzean baztertu sutatik. Estali eta infusio baten antzera, hamar bat minutuz egoten utziko dugu erabat hoztu arte. Birrindu eta txano batetik ondo zanpatuaz pasatu.


Ali-oli aparra

Jarri irabiagailuan berakatz ale bat oliba olio basokada batekin, eta erabat birrindu. Gehitu martxan dagoela esnegaina, eta ondo nahasten utzi. Txanotik ondo pasatu eta sifoi batean sartu. Sifoiari karga sartu eta hozkailuan gorde.

Amaiera

Brotxeta gaztu eta ogi mami birrindutan pasatu. Olio apur batean frijitu eta paper artean ondo lehortu. Apar apur bat jarri kopatxoan, gainean brotxeta frijitua zutik dagoela, eta olio perrexildunarekin zipriztindu. •

[alfredo ibarra]



UXARTE
Baserria (Aramaio)

MARTA PEREZ AYALA,
GASTEIZTARRAK:

Nola deitzen ziren gure
arbasoak?

Uf, Marta, a zer-nolako galdera zaila! Lehenik eta, erran behar dizudana da ez dakigula deus ere gai horrezaz, denboraren poderioz ahanztura ere ahantzi egin baitzaigu, ai ene. Dena den, egia da gauzaren bat ezagutzen dugula, desastre hutsa, zati ezin tipiagoa, hain zuzen ere kasualitatez, txiripa hutsez salbatu diren artxiboetako paper zaharrak, eta haietan izenen bat edo berteze agertzen da. Ah, eta ongi oroit, Marta, duela ehun bat urte Gasteizko apezpikuak bertoko umeak euskarazko izenez bataiatzea debekatu egiten zuten...

Beitu, ziurrenik afera hau landuko dugu berteze batean, baina jaso ezazu bihotzez aurrerapenen bat. Adibidez, aspaldiko Araba nafar eskualde batzuk zirela badakizu. Bon, nafar agiritegietan honelako "perlak" ditugu XIV. mendeko Biasteri-Goardiaz: Eluira Vichia (bitxia), Johan Bizcaya, Miguel Carraça (garratza), Pero Sanchiz Buruuaça, la mujer de Gogorro,...

ALDAIETA (III)

[erlantz urtasun]

Kaixo, irakurle. Aurrekoan hitza eman genuen: "Baina zer zegoen, zehatz-mehatz, Aldaietan?". Beraz, honatx azalpena: hilerri handi bat. Eta, ondoren, indusketa, hau da, "eskabazioa" maisuki zuzendu zuen Agustin Azkarate Garai-Olaun arkeologoak eskainiriko hainbat datu:

-Ehun bat hilobi ongi aztertutik. Alta, urtegiak berteze ehundaka hondatu zituen.

-Eriden diren militar aztarnak -armak- aztertutik, hilerri hau bakarra da iberiar penintsulan, Añamenditik hegoalderantz: ezpatak, azkonak, aizkorak...

-Erastunak, jateko ontziak, beirazko tresneria, belarritakoak, jostorrazak, labanak, kirtenak, orratzak, igitaiak,... Brontzea, zilarra, urrea,...

-Material hauen alderaketa eginez gero ez dago deus antzekorik penintsulan, Araba eta Nafarroa Garaian salbu. Horrela, agertu diren gauzak europear testuinguruan kokatu behar, egungo Frantzia, Alemanian bezala. Ez du zerikusirik bisigodoen munduarekin.

Hurrengo alean, eta gai honi amaiera eman diezaiogun, bertan lurperaturiko hildakoen erritualei buruz arituko gara, hain zuzen ere VI-VIII. mendeetako arabarren erlijio ohiturez.



[? txoko honetan, erlantz urtasun historiagileari euskal herriaren historiaren inguruko galderak zuzenean egiteko aukera duzue. bidali hona zure galdera: geugaste@grn.es]

EYSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Confecciones Pinedo JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

Bacalao Giraldo



- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

ITYRRIETA

Sagardotegia

OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:
HAMAIKETAKOAK ETA
MERIENDAK

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Euskadik behar zaitu



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

www.smsoinu.com

Teknologia berrien garrantzia gure bizitzan geroz eta handiagoa da eta horren adibide dira bereziki Internet eta poltsikoko telefonoak.

Poltsikoko telefonoetarako euskal abesti eta irudiak

[erredakzioa]

Poltsikoko telefonoen munduak izugarritzko hazkundea izaten dihardu bere esparru guztietan. Edonon ditugu operadoreen irudi kanpainak (Euskaltel, Movistar, Vodafone) edo telefono berriak eskuratzeko kanpainak...

Hala ere, telefono hauek bestelako aukerak ere ematen dituzte eta hor ere industria bat sortzen dihardu. Ezagunak dira oso telefonoetarako logo, abesti, jokoak... Izan ere, geroz eta gehiago dira produktu hauek eskuratzen dituztenak.

Poltsikoko telefonoen kasuan euskal kulturaren presentzia hutsaren hurrengoa da. Estatuko eta munduko eskaintzarekin nahastuta ageri da, eta horrek euskal erabilpena gutxitu egiten du. Esan genezake esparru honetan sortu eta kontsumitzen diren produktu gehienek erdal kutsua dutela.

SMSOINU ALTERNATIBA

Hedabide eta webgune askotan iragartzen dira mementoko talde eta bakarlarien abestiak poltsikoko telefonoetarako eskuragarri: Bisbal, Estopa... Baina zer gertatzen da euskal talde eta abeslariekin?

Goazen eta Goierna enpresek elkarlanean alternatiba bat sortu nahi izan dute, euskal irudi eta abestietarako toki bat zabalduz sarean: www.smsoinu.com Webgunearen softwarea Eibarko Code&Syntax enpresak egin du.

Euskal Herriko kulturak eta hizkuntzak aurrera egin dezaten teknologia berrietan jartzea ezinbestekoa da. Izan ere, euskarri modernoetan egotea merkatuan egotea da.

Euskal kulturak poltsikoko telefonoetan duen hutsunea betetzea du hasiera batean helburu, eta denborarekin esparru honetan erreferente izan nahiko luke.

Euskara eta Euskal Herriko bakarlari edo taldeen abestiak poltsikoko telefonoetan jartzeko aukera ematen duen proiektua da smsoinu. Baina abestiez gain, soinuak, irudiak eta jokoak ere eskuratu ahal dira.

Abesti gehienak euskaldun talde eta bakarlarienak diren arren, beste hizkuntza batzuetan abesten duten Euskal Herriko talde/bakarlarien abestiak ere eskuratu dira (La Polla, RIP...).

Soinuak ere eskura daitezke: txalaparta, irrintzia...

Gainera, aukera eman nahi diete tokian tokiko elkarteei (kirol, gastronomi...), beraien abestiak, himnoak, logoak... pertsonalizatzeko. Horretarako eskari orri bat sortu da. •



NOLA ESKURATU ZERBITZUA

- SMS mezuak bidalita.
- Abesti eta logoen kasuan MEZU BAKARRA bidaltzea nahikoa da.
 - Mezuaren prezioa: 0,90€ + BEZa.
- Soinuak eskuratzeko, bi mezu bidali behar dira.
- Jokoak eskuratzeko, lau mezu bidai behar dira.

INFORMAZIO ZABALAGOA

www.smsoinu.com edo 902 01 21 48 telefonora deituta.

ERABILTZAILEETZAKO GOMENDIOAK

Webgune honen eta poltsikoko telefonoetako teknologiaren erabilera oso erraza den arren, zenbait ohar kontuan izatea komenigarria da:

1. SMSOINUko edozein produktu deskargatu aurretik, begiratu poltsikoko

telefonoa bateragarria den eskaintzen dituzten produktuekin.

Horretarako, Bateragarritasunak atalean merkatuan diren poltsikoko telefono marka eta modelo guztien zerrenda daukate, bakoitzak eskaintzen dituen deskarga aukera guztiekin. Dena dela, telefonoak bi urte baino

gutxiago baditu, normalena izango litzateke euren produktu guztiak jasotzeko aukera izatea.

2. SMSOINUko edukiak eskuratzeko, guztiz beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. Telefonoak GPRS sistema aktibatuta ote duen ez badakizu, jar zaitez zure homitzailearekin

harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.

- * Euskaltel: deitu 900 84 02 00 -ra.
- * Vodafone: deitu 123-ra.
- * Movistar: deitu 609-ra.

[arg.: edorta sanz]



Ohiko moda dendetan dagoen arropaz asperturik, mezudun kamisetak eta osagaiak saltzen dituen Soviet denda zabaltzea bururatu zitzairen Gasteizko hiru laguni. Geroztik, urtebete pasa denean, eta bezeroen harrera ona ikusirik, kamiseta propioak diseinatu eta saltzeari ekingo dio hirukoteak hemendik aurrera.

SOVIET, MEZUDUN DENDA

[saioa fdz. de arangiz]

2004ko azaroaren 8an Unai Lobo, Roberto Landa eta Iosu Valdecantos lagun gasteiztarrek Prado kalean kokatzen den Soviet dendaren atea zabaltu zituzten. Bertan bezeroak kamisetak, izerditakoak, jakak, partxeak, txapak, kapelak eta osagarriak aurkituko ditu, baita sovietar kontzeptuarekin zerikusia duten produktuak ere. Izan ere, produktu hauek guztiek zeozer esaten dutela azaldu digu Unai; "guztiek mezua dute, hala ere, mezua ez da zertan errebindikatioa izan, hots, mezua politikoa, kulturala edo soziala izan daiteke. Beraz, ez dira moda dendetan saltzen diren ohiko jantziak".

Filosofia zehatz hau duen negozioa martxan jartzeko ideia mota honetako dendak dituzten lagunengandik eratorri zen. "Halako denda espezializatuak ezagutzen genituen Katalunian eta Madrilan, baina

Gasteizen ez dago halakorik. Gainera, kontaktu asko genituen dena abian jartzeko, batez ere, gure bazkide den lagun katalanak mota honetako Partisano denda baduelako", gaineratu du Unai.

Produktuen jatorriari dagokionez, gehienak estatutik (Madriletik eta Bartzelonatik) ekartzen dituzte. "Gakoa bizitza bilatzea da, hau da, Internet bidez, ezagunen bidez edota kamisetak egiten dituzten pertsonekin harremanetan jarritz", azaldu du. Esaterako, sovietar produktuak Ingalaterran erosi ohi dituzte eta Banda Bassotiren produktuak, berriz, taldearekin harremana dutenez, Italiatik ekartzen dituzte.

Dendan salgai egongo denaren aukeraketa, aldiz, irizpide orokor bati erantzuten dio. Unairen esanetan, "argiago daukagu zer ez dugun saldu nahi, zer nahi dugun baino. Adibidez, mezu sexistak edo "barregarriak"

dituzten kamisetak baztertzen ditugu".

Gauzak horrela, urtebete igaro da geroztik eta Unai esan bezala, jendearen harrera oso ona izan da. Halarik ere, denda mantentzea zaila dela aitortu du, "salgai dauden produktuak nahiko zehatzak direlako eta ez dugulako denboraldiko arroparik saltzen". Hori dela bide, euren diseinatutako marrazkidun kamisetak saltzen hasiko dira gazteak, ez bakarrik Soviet dendan saltzeko, baita besteetan ere. Horrela, Bang, Komunist, Funky Power, Love & Fight edo Buen Rollito lelodun kamisetak kaleratuko dituzte azarotik aurrera. "Merkatu hau laguntzarik behar ez duen merkatua dela esan daiteke, eta honek azken finean merkatua sendotzen du", diosku Unai. Horrekin batera, dendako erakusleiho berezi eta erakargarriak egiten dituztela azaldu digu, "jendearen arreta deitu nahian".

Burdinolak eta burdingintza (I)

[haria-12. 2005]

Zibilizazioaren aurrerapen handi bat metalen aurkikuntza izan zen, eta horrela, lanerako eta defentsarako tresnak egin ahal izan ziren.

Kobrea, adibidez, trikuharrietan aurkitu izan dugu, harrizko eta hezurrezko objektuekin nahastuta. Baina giza garapenean aldaketa handiena sorrarazi zuena kobreaken aleazioa izan zen, brontzea deritzona.

Laster, metal honen erabilera mota guztietako tresnerietara eta apain-garrietara hedatu zen, Iruñeko eta Bilboko museoak lekuko. Barandiaranek Aizkorri mendian, Zabalaizteko haitzuluan sorbatza gora begira zuen brontzezko aizkora bat aurkitu zuen (izpietatik babesteko ezarriko zuten horrela, segur aski).

Kobreaken eta brontzearen ondoren, mota guztietako tresnak egiteko gehien erabili zen metala burdina izan zen, gogortasunagatik eta erresistentziagatik.

Egiptoarrek Kristo baino hiru edo lau mila urte lehenagotik zuten metal horren berri, eta euskaldunek gure Aroa baino mila eta bostehun bat urte lehenagotik.

Gure herrialdean egin den burdinaren aurkikuntza zaharrena Etxauriko nekropolian, Iruñea


inguruan kokatutako herri horretan, eta Aralar mendian egin zen. Bertan garai batean burdina lortzeko erabiltzen zituzten labeetako beirazko zepa beltzak aurkitu dira.

Mineral honen ugaritasunak euskaldunengan meatzaritzarako eta metalurgiarako zaletasuna piztu zuen, eta erromatarrek iritsi baino askoz lehenagotik burdina lantzen eta urtzen zuten euskaldunek. Laster sortuko

ziren lehenengo burdinolak ere.

Euren tamainaren arabera modu batera edo bestera deitzen zitzairen. Handienak "zeharrolak" ziren, ertainak "tiraderak" eta txikiak "olatxoak".

Larramendiri esker, badakigu burdinola handietan txikietan baino arropa gehiagoko burdina zatiak aldi berean urtzen zirela, sutegiak handiagoak zirela, eta baita bertako hausoak ere, eta kokapenaren eraginez indar handiagorekin hartzen eta botatzen zutela haizea...; gainera, hauxe dio: "Sutegi hauetatik mukulu eta pisu handiagoa duen



agoa irteten da, eta gabiaren azpian lau edo bost arroako hiruzpalau totxo egin ondoren, olatxoetara eramaten dira; hemen, pieza txikiagoak eta leunagoak egiten dituzte".

Ertainetan edo "tiradera" deritzenetan burdina mailuarekin kolpatzen zen, gotorrango eta trinkoago

bihurtuz; lan hori burdinola handietan egin zitekeen arren, ola-langileei arreta eta neke handiagoko lana eskatzen zien.

Txikietan edo "olatxo" deritzenetan, burdina zati txikiagoak lantzen ziren, mota guztietako burdineria, tresnak, armak eta abar egiteko.

XVI. mendean Bizkaian laurogei burdinola zeuden, eta XVII. mendean ehun eta zazpi burdinola eta hirurogeita hamar olatxo.

Zazpi mila eta bostehun tona ekoizten ziren urtero.

Aldi berean, Gipuzkoan laurogei burdinola eta hogeita hemezortzi olatxo zeuden.

Arabaren inoiz ez zuten beste probintzia horietan adina garrantzi izan. XVIII. mendean lurralde honetan 14 burdinola zeuden; Araiakoa, Oletakoa, Laudiokoa, Amurriokoa... ziren ezagunenak. Hogeita bost mila kintal ekoizten zituzten.

Lantegi bakoitzean hogeita hamar gizonetik gora aritzen ziren lanean: burdina lantzen zutenak, garraiolariak eta ikazkinak.

Hiru motatako langile edo olagizon zeuden: "ijezelea", batzuetan maisu lanak betetzen zituen; "urtzailea" edo galdatzailea, labearen arduraduna zen; eta "gatzamailea", aurreko bien laguntzailea.

Olagizonen bizitzaren inguruan legenda ugari sortu izan dira. Horietako batzuk Azkuek eta Barandiaranek jaso dituzte. Legenda horietan, mendietako leku urrun eta ezkutuetan bizi ziren burdin kulturako pertsonaia indartsu errealak eta alegiazkoak nahasten dira.

Erdi Aroan olagizonak klase sozial askekoak ziren. Ez ziren zerbitzariak bezala jauntxoan menpe bizi. Olagizonek lan kontratuaren arabera egiten zuten beren lana.

Herriarren edo bilauen baino maila handiagoa zuten. Ezaguna egin zen honako esaldi hau: "olagizonak baino hobeto zaintzen du bere burua". Esaldi honen jatorria olagizonek ongi jateko zuten ohitura izango da, segur aski. Ez da harritzekoa, egiten zuten lanaren gogortasuna kontuan hartzen badugu.

Joan Antonio Moglek "Peru Abarka" lan entretenigarrian dioenez, XVIII. mendearen amaieran ez zegoen olagizonentzat prestatutako eltzeta baino eltze gozoagorik.

Lehen esan bezala, nekazaritzarako eta ontzigintzarako tresnak egiteaz gain, zartaginak eta sukaldeko beste tresna batzuk, abereentzako mihiak eta abar egiten ziren. •

[abenduko alean bigarren atala]

AITORTU
BEHINGOZ ZURE
ARIMAREN HUTSUNEA,
ZURE BIZIMODU
ZENTZUGABEA
...



ASPER-ASPER
EGINDA PREFABRIKATUEN
PROFETEN PROMESA
MALTZURRAK ENTZUN
ONDOREN...



AZKENEAN
EGIA ETA POZAREN
ARGI DISDIRATSUA
AZALDU ZAIGU,
FEDEDUNAREN
SALBAZIOA
...



HONA HEMEN
GUTXI ESKATU
ETA ASKO EMATEN
DUEN ERLIJO
MUNDIALA!!

GUZTIONTZAT,
PARADISUA
ORAIN!!!

GIZARTEAK...
ZER MEREZI DU?
ERRUKIA EDO
MESPREZUA?

ZUK ZEUK
ERABAKI
...



Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua euskaraz bizi

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIAZTUN

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"

Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Fax: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

MIKO

Izozkiak

bar • restaurante

A

albéniz

Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • 945 430 073

XIXILU JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

Uetzal

Hegoamerikako
jantzirik ederrenak

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantaiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO. 143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

eguneko
menua

DIBUtec

Paper Beretzak
Arte Ederretarako Materiala
Ink jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkuesadernazioak
Plastifikazioak
Kopietan Estampaketak

azkarprint
argazkia / inprimatzea
Edozein inprimaketara

• PAPERTEGI TEKNIKOIA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ • INPRIMATEGIA •

EGUR2

Zurezko Teilatuak
Muntaiak Garabiarekin
eta Berrikuntzak

Padurea kalea 12, 16 Pab.
Golain Poligonoa, Legutiano
01171 Araba
Tel.: 627 417 747
Faxa: 945 465 921
montajesegur@eushalnet.net

E4

eusko
alkartasuna

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

GA

Gazte
Abertzaleak

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Euskeraz Araban BAI

Argazki - Estudioa

Erramun

Heracio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02 01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91 01004

sartu

Zure arropa eta oinetakoa

www.sartudenda.com

Kutxilleria, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRA

TABERNA

Español, astrolanetik ostaldea

JANTOKI BEGETARIANO

SAN FRANTZESKO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL: 945 27 65 93

TXUKUNA

EUSKAL HERRIKO EHUNAK:
bainu-batak, oihalak,
sukaldeko zapiak,
patchwork ohe-estalkiak...

Nafarroako errege-erreginen kalea, 11

HEGOALDE

Euskaltegia

Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

> gasteizko irakurle kluba 2005/06

>> azaroaren 24a, osteguna

Graham Greene, Giza faktorea, Ibaizabal 1997 [1979]

dinamizatzailea: iban zaldia
lekua: hikaateneoa (pintore kalea, 13)
ordua: 20:00

>> abenduan mintzagai izango den liburua:
Miren Agur Meabe, Azalaren kodea, Susa 2000




GASTEIZKO
IRAKURLE
KLUBA



> kultur errota

>> azaroak 22, asteartea. Gasteizko Parral tabernan, 20.30ean

matxura. soraluze / elgeta



urtebete inguru da taldea sortu zela. loiola (bateria) eta gorka (gitarra eta ahotsa) bi urte egon dira lokalean entseiatzen. gero jonekin (baxua) elkartu eta pop-rock musika egiteko gogoia izanda taldeak aurrera ekin zion. hiru lagunek musika atsegin dute eta aurrera begira beste gitarra baten babesa jasotzea espero dute. euskaraz abesten dute. taldekideak: jone (baxua), loiola (bateria) eta gorka (gitarra eta ahotsa).

www.gaztesarea.net

> kangeuroak

>> ikasturtearen hasierarekin batera, zerrenda berritzeari ekingo diogu. kangeuro gisa aritu nahi baduzu emaguzu zure izena eta telefonoa, eta zehaztu zure ordutegia:
945222153 /
geugaste@grn.es

aldi berean, zerrendan agertu nahi ez baduzu, abisua eman.

> GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDAREN BERRIPAPER A HILERO JASO NAHI?

>> BIDALI GEUGASTE@GRN.ES
HELBIDERA ZURE MAILA,
"GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA JASO NAHI DUT" ADIERAZIZ.

> geu gasteiz mendi-taldea (geurekin mendira)

>> 2005-2006 denboraldia

>> azaroaren 20an

Berretin (1226m)

goizeko ibilaldia

arduraduna: Iñaki 945 146296


irteera guztiak: Lovaina plazatik goizeko 9.00etan

berretin mendia.
fitxa>

altuera:
1226 m

mendizerra:
gorbeia

igolekua:
markina,
murua,
zarate



euskararen agenda 2005eko urria											
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28
17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28




- Koaderno hauek pentsatzen eta hausnartzen laguntzen dute.
- Buruketen soluzioaren logikan sartzen dute ikaslea.
- Arlo honetan zailtasunak izan ohi dituzten ikasleengana zuzendurik daude.



Sekuentziaturik eta eragiketak europar moneta bakarrarekin, euroarekin alegia, burutzeko egokiturik daude.

Argibideak eta eskariak.
Tel./Faxa:


945 25 75 14



EGA Master S.A.

SARITUENA

Mastercut Aliketa



**BRONTZEZKO
DOMINA
Paris 2004**

PVC Kortatuboa

PIRAINA®



**ZILARREZKO
DOMINA
Paris 2004**

Unique Kortatuboa



**URREZKO
DOMINA
Paris 2004**

133 HERRIALDETAN LIDER



**URREZKO
DOMINA
Paris 2004**

MasterPlus Kurrika



**BRONTZEZKO
DOMINA
Paris 2004**


KALITATEAN LIDERRA

**EFQM
BIKAINASUN
DIPLOMA**



**BERRIKUNTZA
SARIA
METALMAQ 2001**

**ESPORTAZIO
SARIA 2002**



EGA Master S.A.